



Txapela eta marka
berria Xanta
Souzarentzat

→ 45

Gehigarri bereziak
Elizondoko Feriak eta
Santu Guztiaren eguna

BERA → 17
Beilatoki berria
eztabaidaren erdian

MALERREKA → 30
Hamar auzo konpostaketa
eremu jarri dituzte martxan

BAZTAN → 34
Uholdeek sortutako kalteen
balorazioa egin dute

SARA → 38
Usoaren Besta
urriaren 19tik 29ra



Lurraren Eguna egingen dute urriaren 26an, Beran

Barazki eta frutak, eskulangileak, barazki-opil, sagardo eta gasna lehiaketak, musika... → 18



ERREPORTAJEA → 3-5

Kezka eta ezinegonak Urdazubini harrobiko leherketen harira

Hiru hilabete pasatu dira Urdazubini ikara sortu zuen harrobiko leherketa hartatik, baina egoera ez da baretu. Harrobi inguruko leizeetan dagoen ondare arkeologikoa kolokan ikusten dute aunitzek eta hori babesteko lanean ari da SOS Alkerdi Plataforma. Harrobian erabiltzen duten ustiapen metodo berria alde batera uzteko eskatzen dute eta Nafarroako Parlamentura ere eraman dute eskaria.



Nafarroako Arpana Txapelketa Mistoa irabazi dute Nerea Sorondok eta Xabier Urrutiak

Aurten bigarren aldiz jokatu da txapelketa Igantzin eta parte hartu duten sei bikoteen artean, Baztan-Bidasoko Gure Kirolen Klubean ari diren Nerea Sorondo beratarra eta Xabier Urrutia arraioztarra nagusitu dira.

→ 45

GOIZUETA → 32

Ikurrina tarteko Udalari jarritako zigorra bertan behera

Nafarroako Gobernuak prozeduran egindako akats batengatik, Espainiako Auzitegi Nagusiak atzera bota du ikurrina jartzeagatik Goizuetako Udalari jarritako zigorra.

ZOKKETAK → 51



Txartela egiteko
deitu **948 63 54 58ra**

nahi duzun gerta eta motoretan montatu.
Sartzen aho da!

GUZTIZ PERTSONALIZATUAK



INSTITUTU KULTURKARIEN IZENA LOGOTIPOA HERRERA

Kontaktuko bidea, 7
31760 LESAKA
www.kulturkari.com



2015
egutegia

PARETAN JARTZEKOAK KONTSULTATU NEURRIAK (A3, A4...)

ASTELEHENA	ASTEARTEA Martes	ASTEAZKENA	ORTZEGUNE	Ostirala	LARUNBATA	IGANDEA
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

nahi duzun letra motoretan
koloreketan

lehenengo

beste egunak, urtebetetako
komikiaren data, esanquidatuak

eskatu aurrekontua!

ttipi-ttapa

Kontaktuko bidea, 7 | 31760 LESAKA
Tel.: 948 63 54 58

MAHAI GAINEKOAK
Trokelatuak,
paper edo PVCzkoak...

SAKELEKOAK
55 x 85; 66 x 96 mm,
izkin borobilduak...

POSTERRAK
Neurri handikoak,
A1, A2, A3...



Ikusi eredu gehiago:
www.kulturkari.com/egutegiak.html





UTZITAKO ARGAZKIA

SOS Alkerdi plataformako kideak.

GIZARTEA → EZINEGONA ETA KEZKA URDAZUBIN

Urdazubiko harrobian erabiltzen duten ustiapen metodo berria alde batera uztea nahi du SOS Alkerdik

Eskaria Nafarroako Parlamentura eraman du herriko ondarea defendatzeko sortu den Plataformak

Joan den uztailaren 15ean Urdazubiko harrobian izandako leherketak ezinegona sortu du herritarren artean. Harrobi inguruko leizeetan nabaritu ziren leherketaren ondorioak eta horrekin herriko ondare

arkeologikoa kolokan ikusi dute aunitzek. SOS Alkerdi Plataforma ere sortu dute ondare horren defentsan, eta 2013tik harrobian erabiltzen duten ustiapen metodo berria alde batera uzteko eskatzen dute.

G. PIKABEA | URDAZUBI

Eztabaida bizi-bizidago. Hautsak harrotu ditu uztailaren 15ean Marmoles del Baztan enpresak kudeatzen duen Urdazubiko Alkerdi auzoko harrobian izandako leherketak. Eztanda haundia eragin zuen leherke-

ta hark, herritarren eta Urdazubin zeuden bisitarren artean ikaragorria eta harrobi inguruko leizeetan ondorioak uzteraino. Geroztik hiru hilabete pasatu badira ere, egoera ez da baretu. Urdazubiarren artean kezka eta haserrea piztu ditu gertatu-

ak eta SOS Alkerdi Plataforma ere sortu dute herriko ondare arkeologikoa defendatzeko. Ez dute harrobia ixteko eskatzen, 2013az geroztik enpresak erabiltzen duen ustiapen metodo berria bertan behera uzteko baizik. 20 lagunek lantal-

dea osatu dute, 130 herritarretik goitik atxikimendua adierazi diote eta bertze 3.000 lagunek sinatu dute Plataformaren manifestua.

1965. urteaz geroztik ari da Marmoles del Baztan enpresa Urdazubin lanean eta urte batzuez itxita egon ondotik, 2013 hondarrean hasi zen berriaz lanean, ustiapen metodo berriarekin. Uztailaren 15eko hartan 2.000 kilo lehergai erabili zituen eta Santiago Villares Urdazubiko alkatearentzat «guztiz gehiegizkoa» izan zen, «are gehiago, leizeen eta etxeen hurbiltasuna kontuan hartuz». SOS Alkerdi Plataformako Iñigo Imaz eta Patxi Iriarte ere iritzi berekoak dira eta enpresak araudia «urratu» zuela diote.

Legedia bera ere eztabaida-iturri da. 2013an Nafarroako Gobernuak Industria Departamentuak enpresaren proiektu berria onartu zuenean, 30 urterako luzapena emateaz gain, 3.000 kilo lehergai erabiliz leherketak egiteko baimena

eman zion. Aldi berean, ordea, bertze lege batzuek debekua alpatzen dute: Urdazubiko Udala Hirigintza Planaren eta Vianako Printzearen legediaren arabera, leizeetatik 500 metroko perimetroan ezin da biki kilo lehergai baino gehiago erabili eta 50 metroko mugan ezin da harrobiaren aitzinalderik egon. Horrez gain, Alkerdi leizeak nazio mailako ondare izendapena du.

Horiek aintzat hartuz, Nafarroako Gobernuak Industria, Energia eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak harrobiazulatzeko eta lehertzeko lanak aldi batez geldiarazteko agindua eman zuen joan den abuztuaren 14an, «inguruko ondare arkeologikoa mantenduko dela bermatzen duen bertze proiektu batekin jarrai daitekeen aztertze-ko». Baina «Gobernuaren erabakia ez dela nahikoa» uste dute Imazek eta Iriartek: «gainera, behin behineko erabakia izan da eta ez ditu leherketak alboratzen».



UTZITAKO ARGAZKIAK

1- Zelaieta I leizea lur erortzarekin desagertua. **2-** Zelaieta II leizea egon beharko lukeen tokia, Plataformaren arabera. **3-** Zelaieta III leizeko sarrera, uztailaren 15eko leherketa aitinetik. **4-** Zelaieta IIIko sarrera, uztailaren 15eko leherketaren ondotik.

Santiago Villares alkatearentzat, ordea, Gobernuaren erabakia «eragin-korra eta egokia da. Nahiz eta behin behinekoa izan, enpresari proiektu berria aurkezteko eskatu zaio, eta dagokion departamentuek onartua izan beharko du, baita Urdazubiko Udalak ere». Gaineratu digunez, «espero dut txosten horiek eta Udalarena, nik neronek, Udalak eta herritarrok nahi eta exijitzen dugunarekin bat etortzea. Hortaz, uste eta espero dut gerora gelditzea behin betikoa izan daitekeela».

Urdazubiko Udalak enpresaren kontrako salaketa aurkezteko asmoa ere ez du baztertua. Irialean udal teknikariekin «behin baino gehiagotan» bildu dela kontatu digu alkateak: «zehatz mehatz zein arau eta zein neurritan urratu diren aztertze-ko. Guztiarekin seguru gaudenean eta behar diren txosten guztiak eskura ditugunean, zigor prozedura egokia abiatuko dugu».

Udalaren jarreraren inguruan, Plataformako Imaz eta Iriarte ere min-

IBILBIDEA

«Bide instituzionalak agortutakoan, herri mobilizazioari ekinen diogu, eta azkenik, bide legalari»

Patxi IRIARTE, Iñigo IMAZ
SOS Alkerdi Plataforma

SALAKETA

«Guztiarekin seguru gaudenean eta behar diren txosten guztiak eskura ditugunean, zigor prozedura egokia abiatuko dugu»

Santiago VILLARES
Urdazubiko alkatea

tzatu dira: «alkateak gure aldeko hitzak izan ditu, guk defendatzen duguna bere eginez. Baina ez ditu esku artean dituen tresna guztiak erabili nahi ustiapen proiektu berria geldiarazteko. Hitzetatik ekintzetara pasa dila eskatu nahi diogu». Herritarrek «umezurtz» sentitzen direla diote: «ez dute behar duten jarrera mantentzen».

Marmoles del Baztan enpresak, bere aldetik, ez du gaiaren inguruan

adierazpenik egin nahi izan, baina alkatearen irudiko, enpresak udal araudia urratu du: «enpresak baimen guztiak dituela erran badu ere, 2003ko Udal baimenaren arabera, gisa horretako leherketak egiteko eta harrobia ustiatu nahi duten bezala egiteko Udalaren baimenik ez du».

Plataformako kideen arabera, berriz, enpresak «hiru planotan» egin ditu arau-hausteak. Alde batetik, «legedian bi kilotik goitiko leherketak egitea galerazia dagoela» orotarazi dute. Horrez gain, 2013ko urriaz geroztik enpresa erabiltzen ari den leherketa metodo berriaren harira erran dute «ingurumen arloan, harrobian erabiltzen duten metodo honek ez duela ingurumen inpaktua aztertzen duen proiekturik». Eta akitzeko, «Ondarearen Legea hausten duela» adierazi dute, «ez baitu bertan ezarritako babeserako baldintzarik betetzen». Horregatik eskatzen dute «leizeak babestea, horretarako enpresari 30 urteko luzape-na ezartzen dion proiektua bertan behera utziz, eta hortaz aparte, ondare kulturalari eginiko kalteen arduradunei dagozkien isunak ezartzea».

KALTEAK

Alkateak dio Zelaieta III-ko sarrerak izan dituela harrobiko leherketaren ondorioak: «sarrera ireki da, baina ez dirudi barrenkoa kaltetua izan denik. Inguruko gainerako leizeetan itxuraz ez da kalterik izan». Villaresentzat «okerrena, herrian eta turisten artean sortutako molestia eta nahastea izan dira eta horrek sortu duen alarma, aipatutako leizean sortutako kalteaz ahaztu gabe».

Iriartek eta Imazek datu gehiago eman dituzte: «Zelaieta II desagertua dela uste dugu. Zelaieta III-k, aldiz, kalte nabarmen-

nak izan ditu, sarrera erori baita. Ikaburua, Alkerdi eta Berroberriko leizeetan leherketek eragin nabarmena dutela uste dugu. Baina erakundeen aldetik ez dugu interes gehiegirik antzeman orain arte».

Alkateak, baina, garbi utzi nahi izan du bere jarrera gertatu denaren «guztiz kontrakoa» dela: «leherketa eta ustiatzeko sistema hori gaitzes-ten ditut». Hala, «Urdazub-berri berriz ere halakorik gerta ez dadin, nire esku dagoen guztia egingen dut, orain arte egin dudana bezala, baita leherketa aitzinetik ere».

HEMENDIK AITZINERAKOA

Harrobia leize ondoan kokatzea «basakeria-tzat» jo dute Plataformako kideek: «ez dugu ulertzen nola litekeen ondare kultural baliotsu horren alboan, herriari inolako onurarik ekartzen ez dion harrobi bat baimentzea». Ez dute geldirik egoteko asmorik eta SOS Alkerdiko kideek argitu digutenez, «bide instituzionalak agortu bezain pronto, herri mobilizazioari ekinen diogu, eta azkenik, bide legalari». Helburu horrekin, «Euskal Herriko bertze lekuetatik datorren laguntza oro eskertuko genukeela» ere azaldu dute Iriartek eta Imazek, «Urdazubi herri tti-ka baita».

ONDARE ARKEOLOGIKOA

Ondare arkeologiko haundiko kobaluzoak dituzte Urdazubin: turistentzat irekia dagoen **Ikaburua** leizeaz gain, **Zelaieta I**, **Zelaieta II** eta **Zelaieta III**, **Alkerdi** eta **Berroberri** haitzuloak daude.

• **Alkerdi** da, beharbada, guztietan baliorik haundiena duena, Madeleine garaian Nafarroan horman egindako irudi bakarrak hor baitaude, duela 15.000 bat urte egindako bisonte, orein eta zaldi baten antzeko grabatuak (**1. argazkia**). Eta Gravette aldiko tresna gehiago ere aurkitu izan dira **Alkerdin**, duela 25.000 urte ingurukoak.

• **Berroberriko** leizean ere Madeleine garaiko erremintak aurkitu izan dira, hala nola, arpoiak eta xixelak (**2. argazkia**).

Alkerdi eta **Berroberriko** leizeen babesaren lehenesteko interes kultureko ondasun izaera eman zioten guneari 1985eko ekainaren 25eko 16/1985 Ondare Historiko Artistikoaren Legearen bidez. Bertan jasoa dago marmolaren ustiapena egiterakoan **Alkerdi** eta **Berroberriko** leizeen babesaren bermatu behar dela. Udal Hirigintza Planak eta Vianako Printzearen legediak leize hauen 500 metroko eremuan ezin dela leherketarik egin diote eta 50 metroko muga ezin dela harrobiko frenterik izan. SOS Alkerdi Plataformaren arabera, bi leize hauek harrobiko mugetatik ehun metro baino guttiagora daude eta uztaillaren 15eko leherketa izan zen tokitik 350 metro baino guttiagora.

• **Zelaieta I** leizean, Norbert Casteret espeleologo frantsesak Eneolito garaiko (duela 6.000-9.000 urte) zeramika puskek aurkitu zituen. Plataformak dio **Zelaieta I**-eko sarrera 46 edo 50. hamarakadako erortza batekin desagertua dagoela eta **Zelaieta II**-ren sarrera egon beharko lukeen tokian, harrobiko frentea dagoela. Udal Hirigintza Planaren arabera, **Zelaieta I** eta **II** historiaurrekotzat katalogatuak daude eta babes neurrien artean, 50 metroko perimetroan ezin da harrobiko frenterik izan. **Zelaieta III**-n ere hainbat aurkikuntza egin dira: hartzulua, hartzen buru-hezur eta hezuraren arrastoak (**3. argazkia**), haitzean eta lohian egindako hartzen atzapar arrastoak (**4. argazkia**), estalaktika eszentrikoak (**5. argazkia**)... Lege aldetik **Zelaieta III**-k ez du babesik eta harrobiaren aitzinalde nagusiaren ondoan dagoela dio Plataformak. Uztaillaren 15eko leherketak leize honetan izandako ondorioak agerikoak izan dira.



NAFARROAKO PARLAMENTUAN BISITA

Parlamentuko agerraldiaren balorazio «baikorra» egin du SOS Alkerdik

Irailaren 25ean Nafarroako Parlamentuan izan ziren SOS Alkerdiko Aitor Ollo, Iñigo Imaz eta Patxi Iriarte, Parlamentuko Mahaiak gonbidatuta. Eta agerraldiaren balorazio «baikorra» egin digu Imazek: «harrera ona izan genuen talde guztien aldetik. Hemendik aitzinera, Parlamentuan gai honi jarraipen haundiagoa egingen zaiolakoan gaude». Gaineratu digunez, «oposizioak Gobernuari hainbat gauza eskatuko dizkio, hala nola, legedia eta araudiak betearaztea, ondarea arriskuan jar dezakeen ustiaketaren oro galeraztea eta guk eskatzen dugun bezala, arau-hauste bat edo bertze egon bada, dagozkion isunak ezartzea Marmoles del Baztan enpresari». Gainerakoan, Geroa Baik Plataformaren aldarriaren garrantzia azpimarratu zuen; UPNk arazoari irtenbidea emateko lanean ari zirela adierazi zuen, Gobernutik zein Udaletik; PSNk Industria eta Kultura Sailerako buruek batzordean azalpenak eman ditzaten eskatuko dutela aitzineratu zuen; Bilduk Urdazubiko ondarea, bizimodua eta ekonomia arriskuan berriro ez jartzeko exijitu zuen, baita harrobiaren ustiapen metodo berria bertan behera utzi eta harrobiaren bizirautea bermatzeko bertze sistemak bilatzeko eskatu ere; Aralarrek ondarea babestu behar zela erran zuen, eta batez ere, ezin direla Gobernutik hainbertze erabaki hartu zonaldeko ondarea modu egokian ezagutu gabe; PPK legedia betetzea eta enpresaren bizirautea bermatzeko esfortzua egin behar zela azaldu zuen, ondarea eta biztanleen ongizatea arriskuan jarri gabe. Ezkerrak Plataformaren aldarriarekin bat egin zuen, eta legea bete eta ondarea eta biztanleen ongizatea bermatu dadin sostengua emateko prest zegoela erran zuen.



Nire txanda
Joseba URROTZ

Berandu da?

Udazkena hemen da; eguna gero eta laburrago, hostoak lurrerantz... Biziak ere udazkenik badu? Baliteke. Atzean utzirik biziaren udaberria eta uda, galdetzen dut: zer zen egin edo erein beharrekoa udaberrian? Eta udan? Inork erran al zigun? Oraindik garaiz genbiltzala eta, geroxeago jakinen genuenaren itxaropenakin bizi izan gara, akaso, batzuk... Orain, biziaren udazkenean, uza zein den, edo uztarik badugunik ere ez dakigunean, berandu al da deus egiteko, ereiteko...? Dantzaldia akitzera doanean, eta denak alde egin dutenean, merezi al du plazara ateratzeak, bixigarriaren bila? Edo Ennio Morrikoneren musika malenkonia-tsua entzunez, bakarti, haritz eta pago hosto idorren artean etsitu eta lokartzea bertzera aukerarik ba ote da? Akaso, bizitzaren udazkenaz gozatzerik izanen da... udaberri eta udan, galduta, bueltaka ibili eta gero, sabaian uztarik gabe gelditu bagara ere? Berandu da?

«Biziaren udazkenean, uztarik badugunik ere eztagikunean, berandu al da deus ereiteko?»

Ezpala
Aitor AROTZENA

Super-Iribas power!!

Joan den ikasturtean guardia zibilaren laguntza izan zuen D ereduko irakasleen maltzurkeria azaleratzeko baina oraingoa Super-Iribasek bakar-bakarrik egin dio aurre arriskuari: Lehen Hezkuntzako 22 liburutan Nafarroako errealitate instituzionala zapuzten da: ikurriñak, Euskal Herriko mapak... Zein ikastetxetan? Ez dakit, baina nire super-ikusmenarekin topatuko ditut! (Ai jaf te pauer!)

Nabarmentzekoak



Iñigo MARTINEZ
Berako pilotaria

Javier Hernandez Memoriala irabazi du sub-22 mailan Zugarraldeko Agirrerekin bikote eginez eta gainera txapelketako pilotaririk nobleenari emandako saria eskuratu du. Bikain.



Xanta SOUZA
Txapela eta marka berria

Iaz azpitxapeldun izan ondotik, txinga eramaten Euskadiko txapelketara irabazi du lesakarrak hirugarren aldiz. Hori gutti ez eta errekor berria ezarri du, berak lehendik zuena hobetuz.



Floren NAZABAL
Nafarroan bederatzigarrena

Nafarroako aizkolarien bederatzigarren txapela gazi-gozoa izan da Etxarrikoarentzat. Disko-herniarengatik oina-zearekin lortu zuen, baina Euskadiko finalean ez du parte hartuko.

Atzera begira → 2004-X-21 / TTPI-TTAPA 384 zk.



Erratzuko Xanti Oteiza kaikugilearekin solasean

Autobus gidaria ofizioz eta kaiku egilea afizioz. Halaxe aurkeztu zigun bere burua Xanti Oteiza erratzuarrak duela hamar urte egindako elkarrizketan. Bere erranetan, «Domingo Etxandi zenari esker segitzen du bizirik kaikugintzak». Lantzerako orduan, egur batetik bertzera diferentzia handia zegoela ere azpimarratzen zuen: «Egurra baldin bada erreka bazterrekoa aisa goxoagoa da lanerako. Aldiz, harri tokikoa dena zailagoa da. Beti urkia erabiltzen dut kaikuak egiteko». Kontuak kontu, kaikua egiteko «maina pixko bat behar da, baina batez ere denbora, astia, gogoa eta pazientzia» zioen Oteizak.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usao Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidente Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Gerrak debekatu behar

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Gerrak debekatu behar dira, gerrek etxeak suntsitzen dituztelako, eta etxeak suntsitzea galarazia dago mundu osoan.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek nahita suteak sorrarazten dituztelako, eta hori eragotzia dago herrialde guztietan.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek kutsadura ikaragarri handia sortzen dutelako, eta kutsadura sortzea gaur egun oso jazarria dago.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek eskolak eta unibertsitateak puskatzen dituztelako, eta hori onartezina da planeta osoan.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek ospitaleak txikitzen dituztelako, eta ospitaleak txikitzea aberrazio hutsa da.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek animaliak izutu, zauritu eta hil egiten dituztelako, eta horrek ez ditu pertsonak hobetzen.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek urak zikindu, kutsatu eta pozoitzen dituztelako, eta ekintza hori osasungintzaren aurkakoa da.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek artea, museoak eta desagiguten dituztelako, eta hori adimenaren kontrakoa da.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek kulturak birrintzen dituztelako, eta kulturak birrintzea guztiz galarazita dago.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek gosea eta sufrimenduak eragiten dituztelako munduan, eta hori oso aldrebasa eta arbuigarria da.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek gaixotasunak ikaragarri biderkatzen dituztelako, eta jokamolde hori zientziaren aurka doa.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek haur, gizon-emakume eta zaharrak izutu, zauritu eta erail egiten dituztelako, eta hori guztia galarazita dago gure galaxia osoan.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek gizakiak aurrez aurre jartzen dituztelako elkar hiltzeko beren borondatearen aurka, eta hori ulertezina da.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek hizkuntza eta kultura sendoak inposatu egiten dituztelako, eta ahulak, berriz, desagerrarazi, eta hori zapalkuntza da.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek gizartea basati bihurtzen dutelako, eta hori gizatasunaren aurkakoa da. (...)

Gerrak debekatu behar dira, gerrek gizon-emakumeak, haurrak eta abar bortxatu, torturatu eta gaizki tratatzen dituztelako, eta horrek guztiak pertsonak alienatu egiten ditu.

Gerrak debekatu behar dira, gerren eragile eta errudunek ez dutelako beren larru sentibera eta delikatuak arriskatzen, baina besteena bai; ez dute inondik ere elkarkidetasunik.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek maitasuna eta elkartzuna gorroto bihurtzen dituztelako, eta hori ontasunaren ifrentzia da.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek aberats gutxi batzuk gehiago aberasten dituztelako, eta, behartsuak eta jende xumea, ordea, gehiago txirotzen dituzte oraindik, eta hori ez da inola ere morala.

Gerrak debekatu behar dira, gerrek Lur planeta hondatu egiten dutelako, eta Lurra gure etxe bakarra da.

Gerrak debekatu behar dira, laburbilduz, horretarako hamaika mila milioi arrazoi daudelako, jakin, ulertu eta onartu nahi dituztenentzat.

Zein herri erdi zibilizatu eta erdi demokratikok onar ote lezake gerra laurden bat ere?

Mugi zaitez

Cristina URRUTIA (Doneztebeko Osasun Zentr. erizaina)

Ariketa fisikoa modu erregularrean egitea ona da osasuna eta ongizatea hobetzeko edozein adinetan. Eritasunei aurre hartzeko ere baliagarria da. Mugitzen garenean, gustura ibiltzeaz gainera, osasunerako alde onak sortzen dira, adibidez:

- Janari osasungarriarekin batera, pisua kontrolatzen laguntzen du, baita gizentasuna saihesten ere.
- Laguntza ona da bihotzeko eritasunei aurre egiteko, kolesterola hobetzeko eta tentsioa jausteko, altua dutenei.
- Laguntza ona da adineko pertsonetan diabeteari aurre egiteko eta kontrolatzeko.
- Estresa baretzen laguntzen du.
- Autoestima eta bizitzeko gogoia indartzeko laguntza ona da, umorea hobetzen du, baita loaren kalitatea eta iraupena ere.
- Ongizate psikologikoa eta berteekin harremanak izatera bultzatzen du.
- Hezur masaren galerari eta osteoporosari aurrea hartzen die.
- Lunbagoari aurre egin diezaioke, bizkarraren indarra, flexibilitatea eta erresistentzia hobetuz.
- Adineko pertsonen ahalmen funtzionala eta autonomia indartzen du.
- Gazteengan, tabakoaren, alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa kontrolatzeko laguntza izan daiteke.

«Zein ariketa fisiko egin behar dugun pentsatu, zerbait hobetu beharra ba ote daukagun eta nola txertatu eguneroko bizitzan, nahiz eta errexa ez izan»

Ariketa fisikoa egin aurretik, segurtasunerako hurrengo aholku hauek kontutan hartu beharko genituzke:

- 40 urte baino gehiago izanez gero, osasunez nola gabiltzan jakin beharko genuke ariketa fisikoa egiten hasi aitzinetik.
- Eritasunen bat izanda, edo zalantzak badaude, komeni da Osasun etxean kontsultatzea.
- Ariketa saio batean, pixkanaka hastea eta pixkanaka amaitzea gomendatzen da.
- Zorabioak, kalanbreak sumatzen badira edo arnasa hartu ezin denean, hobe da ez segitzea.
- Ariketa fisikoaren intentsitatea murriztu egin behar da adinean aurrera joan ahala.

Amaitzeko erreflexio gisa gomendio batzuk: zein ariketa fisiko egin behar dugun pentsatu, zerbait hobetu beharra ba ote daukagun eta ariketa fisikoa nola txertatu dezakegun eguneroko bizitzan, nahiz eta errexa ez izan.

Irakurleak mintzo

Lesakako
oroitzapenakEsteban IRUSTA MALLEA
(Oñatitik)

Urtetan aurrera goazen heinean iraganari begiratzeko joera handia izaten dugu. Gure bizitzaren pasadizioak gogoratzea gustatzen zaigu lagun arteko solasaldietan. Nire solasaldi honetan Lesakan pasatutako urteak ekarriko ditut gogora, 1960tik 1978arte. Pinadi askoko herritik (Oñati), ia pinadi gabeko herrira etorri nintzen. Nire lehenengo bisita mendira, Agina aldeira izan zen ehiztariak gonbidatuta. Hango pagadi eta hariztiak paradisua iruditu zitzaizkidan. Herri egiturak ere harridura sortu zidan lehenbizikoz joaten zirenei bezala. Hauen artean arkitekto talde handi baten bisita gogoratzen dut. Beraien tartekoekin hitz egitean kontatu zidaten nola bere aldizkariaren azalean agertzen zen Lesakako argazkia, eta nola gorai-patzen zuten herriaren arkitektura. Bi zine zuzendarik ere Lesaka aukeratu zuten bere pelikulen eszena batzuk filmatzeko: Richard Pottier-ek "El cantor de México" (Luis Mariano protagonista) eta Orson Welles-ek Amerikako zuzendari eta aktore ospetsuak "Campanadas a media noche". Orduan ez zegoen industriarik; geroxeago inauguratu zen "Laminaciones" enpresa. Bitartean jende gaztea Frantziara eta Ameriketara joaten zen lan bila, kontrabandoan aritzen zirenak ahaztu ga-

be. Baina gazteen zeregina ez zen lanera mugatzen; kirol asko praktikatzen zen, futbola eta pilota, batez ere. Futbolearen, nire bi ikasle ohiak (Julen Ordoki eta Dioni) Espainiako lehenengo mailan jokatu zuten, beraien aurretik, Juan Ignazio Uhartek bezala. Pilotan (palaz), beste lau ikasle ohiak profesional mailan jokatu zuten Juanjo Salbador handiaren bidelarrituz. Kirolari guzti hauek azaldu ziren Beti-Gazte Elkartean egiten zuten lanari esker. Ni ere tartean nengibilen jokalaria eta Juntako kide bezala. Orduan Gipuzkoako Futbol Federazioan zegoen (orain bezala) eta "Vasco-Navarro" izeneko txapelketan hartzen zuten parte. Kirolaz aparte antzerkiari ere bere garrantzia ematen zitzaion, musikako ekintzekin tartekatuz. Bikondoa soinu-joleak, orduan munduko txapeladunak, bizpahiru aldiz hartu zuten parte.

Herri gehienek bere tradizioak dituzte, eta Lesakan hauek azpimarratuko nituzke: San Fermi-netako dantza ikusgarriak, Inauteriak, Olentzero, sasoi haietan, Lesakatik kanpo, hain ezezaguna zen pertsonaje mitikoa, eta abenduaren 31an Urte Zaharrari egiten zaion Agurra eta Urte Berriari Ongi Etorria. Ohitura hau, baztertuta egon zen baina herriko nagusiei esker berreskuratu egin zuten; beraiek gogoratzen baitzituzten testuak eta soinuak. Nere lana paperean jartzea eta gazteei irakastea izan zen.

Beste gai guztien gai-

netik, herritarren musika zaletasuna nabarmenduko nuke. Parrokiako organujole izatea lortu nuenetik (azterketa bat eginenez) arlo hau barru barrutik bizitzera tokatu zitzaidan. Igande eta jai egunetako elizkizun guztiak organoz lagunduta izaten ziren. Herritarrek asko abesten zuten; batzuk txiki txikitatik, hiru ahotsetara. Kantuari dagokionez, elizek betetzen zuten gaurko musika eskolen papera. Euskaldunek orokorrean musikarako dohai nabarmenak baldin badituzte, euskaldunen artean sentsibiltate berezia duen eskualdean dago kokatuta Lesaka. Laterandar Kanonigoak 1947an herri honetara heldu zirenean musikarekiko sentsibiltate horrek euren arreta bereganatu zuen. Gausa bera gertatzen zen Lesakako hirukoak Oñatin abesten zuten bakoitzean. Beraien artean, Juan Migel Ordokik aipamen berezia merezi du. Frantziako Konpainia batek kontratatuta, Karkasonako gazteluan Manuel Fallaren "El Retablo" abestu zuen Parisko orkestra baten laguntzaz. Batikano II. Kontzilioaren ondoren, oso ezaguna egin zen Goikoetxea-Arrondoren mezaren grabazioan berak egindako bakarlari lana; bestea (ba-

ritono sokan) Zelaieta baztandarra zen. Bakarlariekin jarraituz, Oñati abesbatzan ere beste lesakar bat dugu urte askotan: Loli Ordoki. Lesakarrak ziren organujoleak, Migel Etxebeste eta Luis Taberna. Etxebesteren hiletan (1962) Elizondoko abesbatzak Aita Donostiaren meza abestu zuen Juanito Erasok zuzenduz eta Tabernak organoz lagunduta. Luis Tabernari dagokionez, niri tokatu zitzaidan bera ordezkatzera Lesakan zeukan organo kontzertua suspenditu ondoren. Donostiako Santa Maria elizan ere, behin baino gehiagotan, Oñatiko koruari laguntzea tokatu zitzaidan. Lesakarra zen Pepito lantzi "Los Xey" taldearen soinu-jolea; Paskual Aldabe konposatzailea eta Jose Luis Olaetxea; Santiago Irigoien txistuari alde hainbeste lan egin zuena; Guillermo Agara eta Jose Maria Alzugarai "Larrane", abeslari bikainak. Guillermo Agarak bakarlari lana egin zuen Francisco Eskudoren "Hileta" obraren estreinaldian. Aipatutako bi abeslari hauen ondoren, herriko abesbatzak meza eta kantu ederrak abesten zituen. Eta 1960an bertara heldu nintzenean Aita Madinaren "Aita Gurea" eta "Lauda Sion" abesti bikainak irakatsi nizkien. "Aita Gurea" ren bakarlaria Ramonita Apeztegia zen, goiko si bemola erraz jotzen zuena. Gaur egun, abesbatza gehienak tonoko bat jaitzita abesten dute. "Aita Gurearen" kronologiari, Lesaka izan zen lehenbizikoa abestu zue-

na, Buenos Aires eta Oñati ondoren. Buenos Airesen, nere osaba Luis Malleak estreinatu zuen 1947an, berak sortu eta zuzendu zuen abesbatzaren bitartez Madinbertan zegoelarik. Abesbatzaren izena Lagun Onak da eta beraien bakarlaria Pepita Etxaide Pikabea, lesakar baten alaba zen; aita Iganitzkoa zuen. Buenos Airesera egindako bidaiaren ondoren, Oñatiko abesbatzak 1957an abestu zuen, herrian bertan lehenbizi eta gero, Bilboko Arriagan eta Donostiako Victoria Eugeniaren, Bilboko orkestraren laguntzaz. Okasiariko sortu zen abesbatzan abestea tokatu zitzaidan. "Aita Gurea" rekin batera, Madinaren beste obra zagarri bat abestu genuen: "Poema Arantzazu". Hunkigarria izan zen. "Poema Arantzazu" sarritan jotzen nuen Lesakan, organurako bertsioan. Beste bi musiko aipatuko ditut: Karlos Mungia, tenor liriko sonatua zarzuela munduan, bizpahiru aldiz Lesakan abestu zuelako eta niri organoz laguntzea suertatu zitzaidalako; eta Feliziano Beobide, lesakar batekin ezkondua, bertan hil (1956) eta hilibiratua, Bilboko Athletic futbol taldearen himnoaren egilea (1933) Jose Olaizolarekin konpartituz (1904), gero Karmela Benaola, otxandiotar orkestrarako egokitu eta gaurkotu zuena.

Bukatzeo aipatu nire oroitzapen hoberena, beste guztien gainetik, lesakarek lotua dagoela, beraiek izan ziren eta dira.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Bai [badut itxaropenik Euskal Herrira jokatzera itzultzeko]. Noiz? Auskalo, baina gaur-gaurkoz, egoera nola dagoen ikusita, oso zail ikusten dut. Oso barneratua dut atzerrian egin beharko dudala nire kirol ibilbidea».

«Niretzat garrantzitsuak dira sentsazioak, eta berehala nabari zait noiz ari naizen gozatzen. Eta orain gozatzen ari naiz».

Niko MINDEGIA
Eskubaloia jokalaria
BERRIA 2014.10.03



«Duela bederatzir urtetik hona aldiro azterketak gainditu behar ditudaren sentsazioa daukat, badirudi dena perfektu egin behar dudala. Eta ez dakit zergatik izan behar duen horrela. Azkenean horrek nekatu egiten zaitu. Ni beti indartsua izan naiz psikologikoki, baina momentu batean ezin duzu gehiago eta lehertu egiten zara. Pixkanaka buelta ematen ari naiz».

Julen RETEGI
Eratsungo pilotaria
D.NAVARRA 2014.10.09

11 galdera labur

Nor dugu Berako Josema Huizi?
Mendia gustuko duen beratar bat, kirolaria, aita...

Zein afizio dituzu?

Mendiarekin lotuak diren guztiak: lasterka, oinez, bizikleta, eskiak, mendi bereziak dauden tokietara bidaiak...

Bankuan lanean edo mendiko maldagorretan moldatzen zara hobekien?

Bizitzan leku guztietan daude maldagorrek, eta lanean ere bai. Nola igo jakin behar da.

Mendian oinez ala lasterka nahiago?

Mendia gozatzeko. Bai oinez, bai lasterka, bai bizikletarekin, bai eskiarekin edo egonean ere bai.

Igo duzun gailurrik gustukoena?

Aunitz dira, baina bat aipatzeko Vignemale, Pirinioetan dagoen 3.298 metroko mendia. Gailurrean egin genuen lo eta horregatik berezia da. Gaur mila izarreko hotzean pasatu genuen.

Gustura egiten zenukeena?

Aunitz dira, horietako bat Matterhorn, Italia eta Suitza artean dagoen Alpeetako mendi bat.

Zer eman dio Manttale Mendi Lasterketa Taldeak Berako herriari?

Taldean lastera egiteko aukera, elkarrekin irteerak egitea... Sortzaileek Berari mendira ateratzeko, mendia maitatzeko, kanporajoteko... aukera eman zioten eta hori Mantallarekin lotzen dut.

Berako tokirik gustukoena?

Zortzigarren mugari, itsasoa eta mendia ikusten diren tokia.

Triatlona, igeri, lasterka ala bizikletan moldatzen zara hobekien?

Denetan nahiko kaskarra naiz, baina bat errateagatik hobekien lasterka. Baina denak elkarrekin egiteak bere xarma du.

Zure zein ezaugarri nabarmenduko zenuke?

Bere garaian, Laponian eski zeharkaldi bat egin nuen 35 gradu zero azpitik zirela...

Amets bat?

Erraten bada ez dela betetzen diote... Adinarekin batzuk bete dira.



Josema HUIZI → Berako kirolaria

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA - T. 637 40 86 40 - 31780 BERA - andonimabakoc@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Digital + banatzaile ofiziala

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - etea 21-22
31780 BERA

okaNa
HARATEGIA / URDAITEGIA
Tfn/Fax: 948 630 018 Karitonbarri 12 • BERA

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0934) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

onegin Herbodietetika Ekodenda
ONDI PASA FERIAKI

Dietista nutrizionista
Naturista-homeopata
Opariak / Elikadura ekologikoa
Salmenta granelean
Kolesterol dietak, diabetes dietak, etab.
Giharraren neurketa, grasaren neurketa, uraren erretentzioa...

Jaime Urrutia, 26 Behea
31700 ELIZONDO
948 581 932 | oneginelizondo@gmail.com

ELBETEKO POSADA ONDI PASA FERIAKI

8 logela bainu-gelaekin eta egongela bat

- Eguneko menua
- Karta
- Enpresa otorduak
- Afartzeko plater bereziak prezio berezian
- Bataioak...

Karrikandi z/g
ELBETE
T. 948 581 519
info@posadaelbete.com

www.posadaelbete.com

ARKUPE
Gozotegia - Txokolategia

Txokolatea, urrarekin egina, almendrazkoa, beltza eta xuria.
Tabletak, bonboiak, trufak, Txokolate konfitatua.

Tartak, etxeko izozkiak, pastelak, pastak, miniaturak, bolloak...

KAFETEGIA

Elizondo - Tel. 948 452 393
Irurita - Tel. 948 452 021 - 948 580 059
info@arkupegozotegia.com
www.arkupegozotegia.com

ELIZONDOKO FERIAK

Urriaren 24 eta 25ean azienda, postu eta besta giroan

Ikusmiran ibili edota tratuan aritzea maite dutenentzat, gustuko sasoia heldu da. Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, aurten ere ate joka ditugu, Udazkeneko lehenengo feriak, Elizondokoak. Elizondoko Herriak antolatuta, urriaren 24 eta 25ean, izanen da ariendazale diren eta ez direnendako zita garrantzitsua, beti bezala, ortziral eta larunbatez.

Begirada zorrotza eta diru-zorroa eskuan

Ortziralean, egun osoan, hainbat postu izanen dira Elizondoko karriketan barna, aurreko urteetan 200 inguru jarri izan dituzte. Datozen hilabeteetan goxo goxo ibiltzeko neguko jantziak, oinetakoak, galtzerdiak, mantak... Nekazaritzako lehengaiak, tresnak, jakiak... Begirada zorrotza eta diru-zorroa eskuan ibiltzea komeni, mauka hoberenak eskuratzeko.

Erosi beharrean bere produktuak saldu nahi dituenak aukera du postua eskuratzeko. Joan den urtean postua paratu zutenek lehentasuna izanen dutela ere jakinarai dute antolatzaileek, urriaren 15a baino lehen ordaintzen badute. Postu berriendako epea berri, urriaren 15etik aitzinera irekiko da.



Argazkiak: Juan Mari ONDIKOL

Abelburu hoberenen erakustoki

Aziendak izaten dira Elizondoko Ferietako bertze protagonistak. Udazkeneko Ferien oinarria sorreran, gaur egun garai batean adina azienda buru biltzen ez den arren, kalitate eta itxura bikaineko ahari, behor, behiak... eramaten dituzte inguruko abeltzainek Merkaturako Plazara. Hauek ikusi edota tratuen bat egin nahi duenak, goizeko 10:00etatik hasi eta eguerdira bitarte izanen du aukera. Makineria erakusketa ere eguerdira arte egingen da bertan. Eta 12:00etan bertsolarien txanda izanen da. Aurtengoan, Bittor eta Amaia Elizagoien aita-alabak ariko dira kantuan, eguerdi partea girotuz.



GASOLIOA ETXERA

baztanoil

T. 948 452 309 | M. 677 310 009 | www.baztanoil.com





Idi ala behorra, noren alde egin apustu?

Bertsolarien ondotik, apustu berezia antolatu dute aurten estreinakoz. Idiak ala behorak, bietako zein den indartsuago neurtuko baita. Elizondoko Herriak antolatu duen apostu berezia da aurtengo feriek dakarten berrikuntza. Apostuan, Idiak batetik, behorak bestetik, harriari tiraka ariko dira. Urriaren 25ean argituko da zein animaliak dituen plazarako dohai hobeak. Gero arratsaldean, ohiturari eutsiz, pilota partidak izanen dira. 17:30ean hasita, lau t'erdiko final laurdenetako partida jokatu dute eta ondotik, bertze partida bat ere izanen da. Pilotariak nortzuk diren ez dute zehaztua lerro hauek idazterako orduan.



Irudiak joan den urteko Elizondoko ferietakoak dira. Osagai berberak eta giro bikaina beti.

Larunbatean ere postuak

Ortziraleko aukerarekin nahikoa ez dutenek, larunbatean ere izanen dute feriaz gozatzeko aukera. Urriaren 25ean, egun osoz postuak jarrita egonen direlako herriko karriketan.

ONGI PASA FERIAK
MENU BEREZIAK

Elizondo
T. 948 58 18 20
www.kortaribates.es

kortariXar
sagardotegia + sidreria

Mañonea Agentzia S.L.

Web: www.mañoneaagentzia.com

KONTABLE, ZERGA, LAN eta JURIDIKO AHOULAKITZA

Email: mañonea@mañoneaagentzia.com

GENERALI
Aseguruak

MAÑONEA AGENTZIA - ELIZONDO - BAZTAN - NAFARRROA

Teléfono: 948 58 11 22 - 948 58 88 83 / Email: seguros@mañoneaagentzia.com

homeopatía
KONTSULTA ELIZONDON
JUAN MARTÍN-BALLESTERO
Mediku Homeopata

Tlfnoa: 633 767 609 - Santiago, 58 behea - Elizondo

HOMEOPATIA 200 urte baino gehiago dituen medikuntza naturala da.

ttipi-ttapa
UDAZKENEKO
ESKAITZA BEREZIAK

KUSKONTAKO BIDEA, 07 - I. LESAKA | 948 035 458
kutturkari@ttipi.net | www.kutturkari.com | www.ttipi.net

2.500 FLYER A5 **143€**

KOLORETAN | DISEINUA BARNE | INPRENTA BARNE
GARRAIOA BARNE | BEZA BARNE | EPEA: 10 LAN EGUN

ETXEBIZITZA BIKAINAK



- ETXEBIZITZA LIBREAK ETA BABESTUAK
- LOKAL KOMERTZIALAK
- GARAJE PLAZAK

Baztanberri Plaza, 2 - behea ELIZONDO | T. 948 580 304 | info@jbiturria.com | www.jbiturria.com


TAJFUN
www.tajfun.com

Test Your Limits!



TAJFUN BASO-KABRESTANTEA
mekanikoa eta hidraulikoa

TAJFUN EGUR-PROZESADOREA

BISITA GAITZAZU ELIZONDOKO FERIETAN!!!



AROZ-BERRI, S.A.

Tel. 948 581 021 / 948 580 238 - Fax 948 452 103
jegorrita@arozberri.com - Ctra. NA-6307, Km 0'8 - 31730 IRIUJITA (Navarra)

www.arozberri.com

ALMACO BAZTAN

GRUP

GATTIA










Almaco Baztanen beti berritzen !!

Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857

PIRINIAR ARRAZAKO BEHI AZIENDEN 27. LEHIAKETA-ENKANTEA

Geroz eta kalitate hobia eta erabaki zailagoa

Aurten 27. edizioa bete du Pirinioetako arrazako behien estatu mailako lehiaketa-enkanteak. Elizondon irailaren 20 eta 21ean egin zen Merkatuko Plazan eta Nafarroa eta Bizkaiko azientek lortu zituzten sari gehienak.

Gehienbat Euskal Herrian hazten diren aziendak izan ziren ikusgai Elizondon eta 35 abeltzainek 205 buru lehiaketara aurkeztu zituzten. 18 abeltzain Nafarroakoak ziren (7 Baztangoak), 11 Bizkaitik etorriak eta 6 Gipuzkoatik. Sarien artean bat bereiztekotan, Juan Miguel Agirre Iparrea Bibi zenaren omenez, Arraiozko Elizaldeko Isabel Laurnagak jasotakoa, bere ustiategiaren kalitatearengatik. Atal bakoitzeko irabazleak joarea eta 90 euro jaso zituen saritzat, 70 euro bigarrenak eta 50 euro hirugarrenak.

Pirinioetako arraza kasik desagertua egotetik gaur egun 13.000 buru izatera pasatu da, hobekuntza genetikoaren ondorioz. Elizondoko lehiaketan, geroz eta kalitate hobia eta erabaki zailagoa izaten dela azpimarratu du epaimahaiak

SARIAK

URRUXAK

8-12 hilabete:

1. Pedro Etxeberria (Zenotz)
2. Juan Jose Urteaga (Zestoa)
3. Mari Carmen Abendibar (lurreta)
4. Iñaki Rekarte (Arizkun)
5. Aitor Arana (Arrasate)

12-18 hilabete:

1. Jon Koldo Bikandi (lurreta)
2. Gregorio Iraola (Arraitz)
3. Isabel Laurnaga (Arraioz)
4. Maria Isabel Agirre (Arizkun)
5. Juan Jose Urteaga (Zestoa)

18-24 hilabete:

1. Isabel Ibarrola (Azotz)
2. Gregorio Iraola (Arraitz)
3. Jose Antonio Sorbet (Olague)
4. Mari Carmen Abendibar (lurreta)
5. Jon Koldo Bikandi (lurreta)

2-3 urte:

1. Carlos Oroz (Artze)
2. Gregorio Iraola (Arraitz)
3. Mari Carmen Abendibar (lurreta)
4. Juan Jose Iñarrea (Erratzu)
5. Isabel Laurnaga (Arraioz)

3-4 urtekoak umatuak:

1. Leire Amundarain (Orozko)
2. Gregorio Iraola (Arraitz)
3. Isabel Laurnaga (Arraioz)
4. Maria Isabel Agirre (Arizkun)
5. Mari Carmen Abendibar (lurreta)

Ugalketarako: J.A. Sorbet (Burutain)

4-6 urtekoak umatuak:

1. Jon Koldo Bikandi (lurreta)
2. Leire Amundarain (Orozko)
3. Juan Jose Urteaga (Zestoa)
4. Mari Carmen Abendibar (lurreta)
5. Maria Isabel Agirre (Arizkun)

Ugalketarako: Ion Peio Franziskonea (Beruete)

6-8 urtekoak umatuak

1. Mari Carmen Abendibar (lurreta)
2. Gregorio Iraola (Arraitz)
3. Jon Koldo Bikandi (lurreta)
4. Isabel Ibarrola (Arotz)
5. Juan Jose Iñarrea (Erratzu)

Ugalketarako: J.A. Sorbet (Burutain)

8-12 urte artekoak

1. Jon Koldo Bikandi (lurreta)
2. Carlos Oroz (Artze)
3. Mari Carmen Abendibar (lurreta)
4. Gregorio Iraola (Arraitz)
5. Juan Jose Iñarrea (Erratzu)

Ugalketarako: Isabel Laurnaga (Arraioz)

12 urtetik goitikoak

1. Carlos Oroz (Artze)
2. Jon Koldo Bikandi (lurreta)
3. Pedro Etxeberria (Zenotz)
4. Leire Amundarain (Orozko)
5. Mari Carmen Abendibar (lurreta)

Ugalketarako: Maria Isabel Agirre (Arizkun)

ZEZENKOAK

24 hilabete artekoak:

1. Juan Jose Urteaga (Zestoa)
2. Teodora Mitxelena (lurrita)
3. Mari Carmen Abendibar (lurreta)
4. Carlos Oroz (Artze)
5. Leire Amundarain (Orozko)

2 eta 4 urte artekoak:

1. Mari Carmen Abendibar (lurreta)
2. Iñaki Rekarte (Arizkun)
3. Teodora Mitxelena (lurrita)
4. Isabel Laurnaga (Arraioz)
5. Ion Peio Franziskonea (Beruete)

4 urtetik goitikoak:

1. Isabel Ibarrola (Azotz)
2. Jon Koldo Bikandi (lurreta)
3. Jesus Ostiz (Olague)
4. Jose Antonio Sorbet (Olague)
5. Leire Amundarain (Orozko)

SARI BEREZIAK

Aitzinetik aipatutako sariez gain, eskualdeko abeltzainek aipamen bereziak ere jaso zituzten.

Hauak izan ziren sarituak: Azienda buru onena: Maria Isabel Iparragirre (Arizkun). Baztango arrikonena: Iñaki Rekarte (Arizkun). Baztango emerik onena: Isabel Laurnaga (Arraioz) "Bibi" saria: Isabel Laurnaga (Arraioz).

ESKISAROI JATETXEA
T. 948 580 013
Jaime Urutia • ELIZONDO

Idoia Oteiza
ONGI PASA FERIAK
Plazaburua, 9 beheko | ELIZONDO | T. 948 580 390
info@idoiaoteiza.com | www.idoiaoteiza.com

GOIZALDE
ostatua
MENUAK • KAXULAK
BOKATAK • PINTXOAK
948 581 334 | Jaime Urutia, 8 | ELIZONDO
ONGI PASA FERIAK !!!
TXOKOTO
MENUAK • KAXULAK
BOKATAK • PINTXOAK
948 580 349 | Braulio Iñarte 25 | ELIZONDO

ferreteria Quevedo
TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK
SARRAILAGINTZA ZERBITZU BERRIA

Santiago 31 • ELIZONDO
Tel. 94 580 234
Faxa: 948 581 210





ttipi-ttapa ko
BERRIAK
FACEBOOK eta TWITTERREN
EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

facebook



hiru ... berrituena berrituena
Bartan Berri 7 B | ELIZONDO
T. 948 581 219

Ongi pasa feriak!

Kakalak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hamburgerak, ensaladak, frikoak...
Etan eta dastatu gure bereitasunak!

BASTIDATIK ekarritako ARDOAK: Montebuena, Solaguen ardo beltz ondua eta Solaguen txuria
Infusioak, zapone gurtietakoak
Eskoriar eta lendar kateak

Maite Petirena
ongi pasa feriak!

Asesoria agentzia • Agencia de seguros **Allianz**

Tel. 948 452 394
Santia Plaza • 31700 Elizondo

DATUCELAY

Ordenagailu bidezko direkzio zuzenketa
Mekanika • Elektrizitatea
Gasen aztertzailea • ITVrako prestakuntza

IBILGAILU KLASE GUZTIEN KONPONKETA

ONGI PASA FERIAK

Santiago, 90 • ELIZONDO • Tel. 948 580 225

Malkorra

Txokolatea urrakina egina
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia

Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

ZERGALAN
aholkularitza
www.zergalan.es
info@zergalan.es

ZERBITZU FISKALAK

- Aholkularitza fiskala
- Zerga agiriak
- Ezerita alborpenak
- BEZ alborpenak
- Sozietate zergak
- Zure negoziaren zergen kontrola

KONTABILITATE ZERBITZUAK

- Kontabilitatean aholkularitza
- Enpresen erakitzia
- Kontabilitatearen eramatea
- Administratzaile zerbitzuak
- Merkataritza-erregistroen urteko kontuen aurkezpena

BERTZE ZERBITZUAK

- Jubilazioen eramatea
- Eragaritasunen eramatea
- Lan eta erresistentzi baimenen eramatea
- Aita eta amatasun bajak
- Lingabegi kapitalizazioak
- Dinu - laguntzak
- Negozioen bideragaritasunen eramatea

Bartanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 • F. 948 580 648

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 • F. 948 451 304

SOBRINO
ostatua

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Bazkariak
ortzirala, larunbata
eta igandetan

ONGI PASA FERIAK

Santiago • ELIZONDO
948580823

HUSQVARNA 236
199 €
LEHEN: 249 €

HUSQVARNA 135
249 €
LEHEN: 349 €

HUSQVARNA 140TB
299 €
LEHEN: 449 €

BB BLOK BAT TALLERES

Santiago 85
31700 ELIZONDO
NAFARROA

T. 948 580 898
M 697 10 50 89
www.blokbat.com

GOÑI
harategia

ongi pasa feriak!

Mendinueta, 3 • ELIZONDO • T. 948 580 164

GABRIEL LABORRA
arkitektoa
www.laborra.com
948580000 - Santiago, 14 - T. 948 580 122

arteka
arkitektoa
Tel. 948 580 122
Fax 948 580 122
www.artekadonostia.com

ONGI PASA FERIAK!

ALEMAN ARRASTIO VIRGINIA ABOKATUA

ONGI PASA FERIAK

José Urrutia 20 • 1
31700 ELIZONDO
Tel eta Fax: 948 452 570
Mugakorra: 629 920 142
jur@alemanabokatuak.com

BERTAN ELKARTEA

Une zailetan elkarrekin aurrera eginez

Lainopetik irten nahian dabilta aspaldixkoan Bertan Merkatarik Elkartekoak, baina aurtengoan argi izpi gehiegirik ez dute izan giroa goxatzeko. Krisiaren eragina batetik eta uholdeak bestetik, Lourdesek azaldu digu bi eragile horiek izan direla urtea markatu dutenak «**krisia orain hasi da gehiago nabaritzen, hortik barna aise lehenago sumatu zuten, baina herrietara mantsoxeago ailegatu da. Gainera uholdeek min haundia egin dute, batzuk ez dira errekuperatu eta etsi behar izan dute**». Hala ere, «**baikorrak**» direla aipatu digu «**antolatu diren gauzak atera dira, jendeak parte hartu du eta aitzinerat egiteko gogoz gaude**».



Lourdes Andueza

Urteari erreparoa

Bazkide kopurua mantendu egin dute azken urteetan eta 70 elkartekide dira gaur egun. Lan egiteko gogoz dira eta irudimena lagun, bateko eta bertzeko ekitaldiak antolatzen ahalegintzen dira euren komertzioei bultzada emateko. Esate baterako aurten lehenbiziko aldiz aste sainduetan azoka antolatu dute «**aste sainduen bueltan herrian jende aunitz ibiltzen dela sumatu genuen, bisitariak eta baita bertakoak ere. Horri etekina ateratzeko, feria antolatu genuen beheitiko karrikan, Jaime Urrutian, eta erantzuna arras ona izan zen**» azaldu digu Lourdesek.

Lourdes ANDUEZA |
Bertaneko Lehendakaria

Uda partean, Bertan Eguna izaten da elkarreak antolatzen duen ekitaldi nagusia. Abuztuan egin ohi da eta dagoeneko «**nahiko finkatua dagoen besta da**». Jaime Urrutia karrika izaten da bestaren bilgune erran digu «**bertako merkatariek gure postua karrikara ateratzen dugu eta bertze karriketako merkatariek ere bertan jartzen dituzte beren postuak. Gure komertzioetako produktuak jartzen ditugu salgai eta horretaz gain artisauak gonbidatzen ditugu, fanfarrea, Amairuko Gaztelu taldea...**». Balorazioa ere egin digu «**egun polita izan zen eta merkatariek kontent ziren**» gaineratu digu. Bilboko Merkatariekin ere elkarlanean segitzen dute eta aurten ere, egonaldi bereziak zozketatu dituzte.

Esku artean dituzten proiektuak

Duela gutxi aurkeztu zuten Baztan, Malerreka eta Bortzirietako elkarrekin Denok bat txartela eta dagoeneko «**Baztango 11 komertzioetan martxan da**». Aipatu digu «**bezeroen fidelotasuna saritzeko modu bat**» dela, «**izan ere erosketen truke puntuak lortuko dituzte eta horiek gero deskontu bihurtuko dira**».

Momentu honetan «**egutegia prestatzen ari gara**» aipatu digu. Urtero egiten dute, iaz lehiaketa egin zuten baina aurtengoan Itxusi argazki elkarrekin kolaborazioekin gauzatuko dugu. Baztango etxe guztietan banatzen dute eta bertan informazio aunitz gehitu ohi dute «**arras baliagarria suertatzen dena, telefonoak eta egunerokoan erabiltzen diren datu aunitz dakarrelako**». Eguberrietako kanpainarekin ere laster hasiko dira, aurreko urteetan bezalaxe «**diru kopuru batzuk zozketatuko ditugu bezeroen artean, eguberrietako erosketak bertan egitea bultzatzeko asmoarekin**».

Kris ONE PASA PUSARI
leapaindegua
Gibauri, 14 - ELIZONDO - 948 580 025

ANZABAL
INMOBILIARIA

- Zuzen abarigatzen
- Aukerak, errentak, ibilgai eta biltza abarigatzen
- Lan aholkularitza
- Norbera eta Auzoari Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, IRZa...
- Inmobiliaria
- Baserri, bidea, pisu, etab... salmenta eta alkatua
- Gestioa

Santiago, 15 • ELIZONDO • T/F: 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Albaitaritza
www.albaitaritza.com **Materiala**
Tfn.: 948 580 980 **Botika**
Hazia
Osagarri mineralak
Bildots eta aratxeendako esnea
Xaboi eta desinfektatzaileak

Albaitack
www.albaitack.com **Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak**
Tfn.: 948 506 169

ALBAIKIDE
Tfn.: 902 169 169
www.albaikide.com
Albaitari zerbitzua

GIZARTEA

ELIZONDOKO OSASUN ZENTROAREN BEHEITIAN

Emakumeen Arreta Zentroa lehen zegoen tokian jartzeko asmoa dute

Baztan-Bidasoaldeko udal hautetsiek Oronoz-Mugairin jartzea eskatua zuten

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bertizarana, Malerreka, Sunbilla, Bortziriak eta Urdazubi eta Zugarramurdiko emakumeak artatzen dituen Arreta Zentroa berri ere Elizondoko Osasun Zentroaren behe-tiko aldean jartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak eta ez Oronoz-Mugairin, Baztan-Bidasoaldeko 15 udaletako ordezkariak eskatua zuten bezala.

Uztailaren 4an Baztanen gertatutako uholdeen ondorioz Elizondon zegoen eskualdeko emakumeen arreta zentroa erabili ezinik gelditu zen. Udal hautetsiek errandakoaren arabera, «kokapena mantentzea ezinezkoa zela adierazi zigutenez eta zonaldeko emakumeak Burlatara joan behar zuten zerbitzua jaso ahal izateko, zentro hau berri martxan jartzea prestatzea zela iruditzen zitzaigun eta horregatik lehenbailehen soluzio

bateratu bat bilatzen saiatu ginen».

Elizondoko Osasun Zentroko tokiak arriskua zuela ikusita, bertze kokapen bat lehenbailehen bilatzearen beharra ikusten zuten udal ordezkariak. Behin behineko, Elizondoko Benito Menni ospitaleko eraikinetan jartzea erabaki du Osasunbideak. Eskualdeko udalen ustez, «behin betiko kokapenaren tokia topatu eta eskualdeko emakumeen zentroa lehenbailehen jartzearen beharra ikusten dugu».

Toki berria proposatzerakoan udalerritarakoan erabakiak, erdigunetik hurbil egoteak eta sarbide egokiak izatea kontutan hartu zuten. Eskualdeko 15 udalerri, Igantzi, Bertizarana, Arantza, Beintza-Labaien, Sunbilla, Bera, Ituren, Lesaka, Oiz, Etxalar, Urroz, Baztan, Donamaria, Zubieta eta Ezkurrari, Oronoz-Mugairin Nafarroako Gobernuak duen eraikinetan beheko solairua egokia iruditu zitzairen. Emakume zentroko langileekin ere solastu zuten eta kokapena egokia izan daitekeela iritzi dute. Bertzalde, Oronoz-Mugairiko urgentzizko puntua egonkortzeko eta zabaltzeko aukera ema-



ARGAZKIA: INAKI ATXA

Urriaren 7an egin zuten agerraldia udal ordezkariak Malerreka Mankomunitatean.

ten du, baliabideak modu arduratsuan erabiliz eta zerbitzua mantenduz edota hobetuz.

Osasunbideko Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariarekin bildu ziren udal ordezkariak eta eskakizuna azaldu ondoren, «Emakumeen Arreta Zentroa uholdeen aurretik zegoen eraikinetan mantentzea erabaki

dutela helarazi zigun eta datozen hilabeteetan itzultzeko asmoa agertu digu, data zehatzik eman ez duen arren».

Jasotako erantzunak harridura eta kezka sortu die hautetsiei, «ez dugulako ulertzen hiru hilabeteren ondoren Nafarroako Gobernuaren azalpena. Osasunbideko ordezkariak, Elizondoko Osasun Zentroko

beheko solairua erabili ezinik geldituko zela adierazi zigutenez, bertze kokaleku bat bilatzeari ekin genion eta orain segurtasun eta egokitasun arazorik ez omen dagoela azaldu dute eta bertze proposamenik onartzeko aurrekonturik aurreikusirik ez izateak erabaki hori hartzera bultzatu omen ditu».

HILABETE HONETAKO ESKAINTZA Bortziriak-en

599€tik hasita

KONTSUMO BAJUKOAK
Bero-purpa sistemari enker A++ motakak dira eta konbentzientzia lehoragailu estandarrak baino gutxiago kontsumitzen dute

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

KONPONKETAK ere egiten ditugu

%20 DESKONTUA SUKALDE ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091
info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

EZTABAIDA → ITURLANDETAKO BIZILAGUNAK

800 sinadura aurkeztu dituzte «beilatokia toki egokian» eskatuz

Udal
ordenantza
aldatzea ere
eskatzen dute

TTIPI-TTAPA

Berako Iturlandeta-ko beilatoki proiektuak zer errana sortzen du oraindik, eraikuntza lanak hasiak direnean. Bizilagunek agerraldia egin zuten irailaren 30ean lokalaren atarian, beilatokia toki egokian behar duela eskatuz. «Berako herriak baliu erantsia izaten ahal du, herriaren erdian eraikin propio bat egiten bada, eroso, sarrera erraxa duena eta aparkatzeko toki nahikoarekin. Berako herrian badaude horrelako baldintzak betetzen dituen eremuak», adierazi zuten.

Apirilaren 25ean beilatokia Iturlandetan eginen zela aditu zutenean gaurko egunera egin dituzten harat-honatak azaldu zituzten bizilagunek. Hain zuzen, hasieratik udal ordenantza aldatzeko eskaera egin zuten eta horren alde 800 sinadura aurkeztu badituzte ere, bizilagunek salatu dute Udalak ez duela bizilagunen iritzia eta ikuspuntua kontuan hartzen.

Marisol Taberna alkateak aipatu du «alde guziki ados gaudela ordenantzen aldatetaz ez lukeela eraginen onar-

tua dagoen lizentziari, berez ez zaigu lehentasuneko iruditzen ordenantza aldatzea». Udalak solasteko borondate eskasa duela ere salatu dute bizilagunek eta horri erantzunez, alkateak dio «eskatu duten guzietan bildu gara, kontua da gero beraiek erraten dutenarekin konforme egotea edo ez, pentsatzen dutados ez egoteko eskubidea ere izanen dugula».

Irailaren 2an hasi ziren beilatokiaren lanekin Iturlandetan. Bizilagunek, irailaren 13an Elizaren bitartekaritza eskatu zuten eta Lesako erretora Iracheko arduradunekin solastu zen eta hiru aldeko kideak (bizilagunak, Udala eta Irache) esertzeko eskaera egin zien, «baina gure proposamenak baztertu dituzte eta ez dira jarri solasteko». Alkateak dioenez, «lokal hori erosten interesatua dagoenak egin behar dio proposamenajabe-ari eta ez dagokio udalari partikularren arteko salerosketa harremanetan sartzea».

BILDUREN OHARRA

Bilduk bere desadostasuna adierazi du Aralar eta EAJko udal taldeek gai honen inguruan izan duten jarrera eta aferaren kudeaketa moduekin. Beilatoki zerbitzua herriarentzat hagit garrantzitsua denez,



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Irailaren 30ean egin zuten agerraldi publikoa Iturlandetako bizilagunek

«hausnartze eta eztabaida prozesu bat merezi du eta, zergaitik ez, galdeketa edo partehartze prozesu bat, adibidez erabakitze lehenetsuneko zerbitzua den, edo egokia den zerbitzu publikoa egitea edota eraikin publiko bat ahalbidetzen ahal den zerbitzu hori enpresa pribatu batek eramateko».

ARARTEKOA

Nafarroako Arartekoak ere erantzun egin die Iturlandetako bizilagunek beilatokiaren inguruan agertutako kexari. Arartekoak idatzia igorri dio Udalari, bizilagunek eskatzen zuten moduan Udal Plan Orokorra aldatzea eta beilatokiarendako bertze kokapen bat bilatzea iradokiz. Udalak Ararte-

koaren txostenetik ondorioztatzen du zuzen jardun duela, eta hartu dituen erabakiak legearen baitan hartuak izan direla. Arartekoaren txostena gomendio mailakoa baino ez da eta bertan egiten dituen proposamenek Udalarentzat zein ondorio juridiko eta ekonomiko litzuzkeen aztertzeko txosten juridikoa eskatu du.

**KALITATE MAXIMOA
PREZIORIK HOBERENEAN**

AN ENERGÉTICOS LESAKA
Alkaiaga Industrialdea • Bararta, 18
(N 43° 16' 50" - W 1° 41' 40")

**GASOLIO A
prezio
ezin hobeak**

ESKaintza Berezia!!
Irailaren eta urriaren 5 zentimo/litro deskontu zuzena
bankuko kartelarekin ordaintzerakoan

ETA GARRAIOLARIENTZAT...
Kafea+pintxo edo ardoa+pintxo 250€ gasolio erosita
Eguneko menua 600 euro gasolio baino gehiago erosiz gero
Erosketa-tiketa aurkeztu behar da*

*Tiketa hau ez da baliagarria 100€ baino gutxiago erosi diren garaietan. Erabakiak erabakigarriak dira. Erabakiak erabakigarriak dira. Erabakiak erabakigarriak dira.

ERABILGARRI EGUNEO 24 ORDU

BERA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 25 ETA 26AN

Lurraren Egunak

28. edizioa

beteko du

Bezperako
barazki opil
lehiaketa
13:00etan
eginen da

TTIPI-TTAPA

Ohiturari eutsiz, urriko laugarren igandean ospatuko da Lurraren Eguna. 28. edizioa beteko du Gure Txokoak Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatutako ekitaldiak eta hilaren 26an egingen da.

Bezperako egitaraua ere urtetik urtera osatua goa izaten da. Aurten, zortzigarren edizioa beteko duen barazki opil lehiaketa 13:00etan egingen da Altzaten. 15:30ean ttikien lasterketak egingen dira eta 17:00etan Lizuniagako igoera. 18:30ean haurrendako saioa izanen da Alzateko frontoian eta 19:00etan argazki erakusketak Ikastolako aretoan.

Igandea izanen da egun nagusia. 09:00etarako lehiaketarako barazkiak, gaztak eta sagardo botilak eraman beharko dira Ricardo Baroja eskolara. 10:00etatik aitzinera eskulangile eta elikadura azoka eta barazki erakusketak egingen dira Alzate-

ten. 10:30ean txalaparta, zeltiar musika eta lrats trikitilariak izanen dira Alzateko plazan. 11:00etan hasiko da 28. Gasna lehiaketa eta Berako trikitixa eskolakoak kalejiran abiatuko dira. Egurdian, 17. Sagardo Lehiaketa egingen da Karnaxenean eta kalejiran aterako dira Musika Eskolako eta bandako musikariak. Bi lehiaketetan parte hartzeko Bortzirietako ekoizlea izan behar da. Gazta lehiaketa irabazten duenak 300 euroko saria eta oroigarri bat eramanen ditu eta bigarrenak 100 euroko saria. Sagardo lehiaketako irabazleak, berriz, 200 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak 75 euro.

Arratsaldean ere segituko du bestak. 16:30ean hasita Alzateko Plazan herri kirolak izanen dira. Talde mistoak aitzinera, arpanan eta harri altxatzen ariko dira. Sari banaketa egingen da bertsolariekin, enkantea, dantzarien saioa, txaranga eta dantzaldia. Egun guztian musika, taloak, eta jaki eta edariak dastatzeko aukera izanen da. Euria egiten badu ekitaldiak Alzateko frontoian eta kiroldegian egingen dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sortzaileak eta lehen irakaslea omendu ditu Labiaga Ikastolak

Labiaga Ikastolak 40. urteurrena ospatuko du ikasturte honetan. Urte osoan kultur eta kirol ekitaldiak antolatzeko asmoa dute eta lehenbizikoa urriaren 4an egin zuten. Ikastolako sortzaileak izan ziren Josu Goia, Espe Aranibar, Bego Aranibar, Bixente Taberna, Antton Erkizia, German Goienetxe eta Ixa Ordoñez omendu zituzten, Aurrekua dantzatu eta oroigarri bana emanaz. Modu berean, lehenbiziko irakaslea izan zen Berroetako Pili Gartxitorena zenari ere omenaldia egin zitzaion eta bere ordeaz, alargunak eta semeak hartu zuten oroigarria. Labiagaren 40. urteurrenako lehen ekitaldiari hasiera emateko, Ikastolaren egoitza izan diren eraikinak kalejira baten bidez lotu zituzten. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak hartzen dituen Eztegarako eraikinetik altxareroa bota ondotik, Herriko Etxera joan ziren, gero Lagun Etxera eta azkenik, DBHko ikasleak hartzen dituen Alzateko ikastolara. Haurren jokoen ondotik omenaldia eskaini zitzaion sortzaileei eta lehenengo irakasleari. Ondotik, 350 lagun inguru bildu ziren Alzateko frontoian egindako bazkarian.

IRAILAREN 27KO EZ OHIKO BATZARREAN

Zuzendaritza Batzordea berritu du Gure Txokoak

TTIPI-TTAPA

Gure Txokoak elkarteak ez ohiko batzarra burutu zuen irailaren 27an, zuzendaritza batzordea berritzeko asmoarekin. Gai garrantzitsua izan arren, deialdiak ez zuen arrakasta handiegirik izan, 20-30 bat bazkide bertzerik ez baitziren auzetzu.

Angel Ponbar presidente ohiak lau urteotako balantze gazi-gozoa egiten zuen idatzia irakurri zuen eta Gure Txokoak bezalako elkarte bat «go-go eta konpromisuarekin» aitzinera atera daitekeela azpimarratu zuen. «Gure Txokoak herrian egiten duen lana baloratua ez dela» iruditu arren, aitzinera egin dute eta bidean lagun izan dutenak eskertu nahi izan zituen Ponbarrek. Modu berean, azpimarratu nahi izan zuen lamoteneako ostatuan egindako obra eta bereziki

zuzendaritzako bodegeroek egindako lana, «ostatuko kontuetan defizita edukitzetik irabaziaz edukitzera pasatu garelako, bodegeroena benetan lan lotua da eta gure ustetan zuzendaritza berriak nola antolatu pentsatzeko moduko gaia».

Eskutitza irakurri ondotik, zuzendaritza batzorderako norbait aurkeztu ote zen galdegin zuen presidentek ohiak eta Patxi Castillo, Carlos Pacheco eta Jaione Dozagarat-ek aurkeztu zuten beraien burua. Beraz, hiru lagun hauek, bokalia ezberdinetako ordezkariak batera osatzen dute zuzendaritza batzorde berria. Hain zuzen, Iñaki Eskudero (dantza); Joseba Errandonea (txirrindularitza); Jose (areto futbola); Elzaurdia, Lazkano-tegi eta Mitxelena (pilota) eta Luis Irazoki eta Angel Ponbar (futbola).

MAZIZIOR
edariak

948 631 557
Ziobi, 3 ALKAIAGA
maziziorsenper@gmail.com

**EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA**

SANEAMIENTOS GARE S.L.

%50-%60-ko beherapenarekin hainbat artikulu salgai:
hoiungelako altzariak, txorrita desberdinak, esagarriak...
Jubilazioarengatik neguzia ixten dugu eta arkeneko alabak salgai ditugu. Deitu edo etorri ikustera konpromisorik gabe.

OKANTONBERRI, 10 BAJO
BERA

Tel. 627 91 42 71

BAR Botxo

OSTATUA

Zalain • BERA • 948 630 052

LESAKA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 24an

San Fermin Elkartearen Eguna omenaldiekin ospatuko dute

Urrezko Ezteiak eta 85 urte bete dituztenak omenduko dituzte

Aitor AROTZENA

San Fermin erretiratuen elkarteak, udalaren laguntzaz jubilatuen eguna antolatu du urriaren 24an. Urtero bezala, Urrezko Ezteiak eta 85 urte betetzen dituztenei omenaldia eskainiko zaie. Aurten, 50 urte ezkondurik bete dituzten Lorenzo Frago Cañamero eta Dominga Lopez Giraldo eta 85. urtebetetzea egin duten Josefina Sagarria Alzugarai, Jose Mixelena Abanz, Jose Iruñeta Petirena eta Jose Otxoteko Almandoz omenduko ditu CAN Fundazioak. 12:30ean Meza Nagusia ospatuko da San Martin elizan. 13:30ean Aurrekua dantzatuko zaie omen duei Plaza Zaharrean. 14:00etan bazkaria izanen dute frontoian, honako menu honekin: hasteko, urdaiazpiko egosia eta ondua, pate, zainzuriak, txibierroak eta kroketak, ganbak plantxan eta entsalada; segidan, bildots erreapata frijituekin eta postreko petixux krema-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

75. urteurrenaren ospakizunetarako ideia bila Beti Gazte

Beti Gazte elkarteak 75. urteurrena ospatuko du 2015ean. «75 urte bete eta beti gazte izaten segitzea» edonolako gauza ez delakoan, merezi bezala ospatu nahi du zuzendaritza batzordeak urtebetetze hori eta horretarako kirol ekitaldiak, kultur jardunaldiak, erakusketak, hitzaldiak eta bertze hainbat ekintza prestatu nahi dituzte. Helburu horrekin, eskutitza igorri die bazkideei, beraien ideiak, gogoak, nahiak... Zuzendaritza Batzordera helarazteko eta sortu behar dituzten batzordeetan parte hartzeko. Ortzegunero 20:00etan biltzen dira.

dunak txokolatearekin, dena ardoa, cava, kafea eta likoreekin bustia. Bazkarirako izen ematea urriaren 15a arte egin daiteke, Nafarroako Kutzako bulegoan edo San Fermin elkartearen, 34 euro ordainduta.

Bazkalondoan, omenaldia eskainiko zaie aurtengo protagonistei, txapelketa ezberdinetako sariak eta trofeoak banatuko ditu San Fermin Elkarteak eta dantzaldia ere izanen da.

BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLAREN ESKUTIK Bertso Zikloa prest dute aurten ere

A.A.A.

Bortzirietako Bertso Eskolak, Udalaren eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzaz, Bertso Zikloa antolatu du.

Urriaren 17an, ortziral arratsaldeko 5:30ean solasaldia eskainiko du Amaia Agirrek Harriondoan. **Urriaren 25ean**, larunbat arratseko 8etan *Bi bala* bertso musikatuak izanen dira Harriondoan.

Azaroaren 1ean, 17:00etan Andra Mari erresidentziako saioa eskainiko dute bertso eskolako kideek eta 23:00etan Lesaka eta lurretaren arteko bertso desafioa egingen da Haizegoa ostatuan.

Azaroaren 8an, gaztain jatea egingen da Basurden. Sustrai Colina eta Jon Maia ariko dira bertsoetan, Josu Goikoetxearen gidaritzapean (5 euro).



Pertsonaia

Bixente IGARTZABAL

Marka pertsonal berria Calellako Ironmanean

Urriaren 5ean egin zen BCN Ironmanaren lehen edizioa Calellan (Bartzelona). 2.500 kirolarien artean, Bixente Igartzabal herritarrak 241. postuan bukatu zuen sailkapen orokorrean eta 47. bere kategorian. Ironmanean bere markarik onena ere egin zuen Beti Gazteko kirolariak. Izan ere, Kataluniako Ironman hau bukatzeko 9 ordu, 36 minutu eta 30 segundo behar izan zituen Igartzabalek. Hasierako 3,8 kilometroak igeri-egiteko ordubete, 22 minutu eta 2 segundo behar izan zituen, bizikletako 180 kilometroak 4 ordu, 39 minutu eta 52 segundotan egin zituen eta maratoi lasterkaldia 3 ordu, 28 minutu eta 3 segundotan. Lanzarote eta Embrunmangoen ondotik, denboraldiko hirugarren Ironmanazuen lesakarrak, bere bizitzako hama-hirugarrena.

IRU BIDE
Enologia - Asakia

Bizkaia, 31100 Lesaka
Tel: 948 637 127

Karsuk®

Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzariak

Karlos Pomer Bains

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

Lentana
Berrantza
Mertzen
Jantziak
Pentonak

kaltzagoria

Beroko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

ETXALAR

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 19AN

Jendetza bilduko du Usategietako Igandeak

Bezperan ere ekitaldiak izanen dira

Irune eta Itsaso

Urriaren 19an izanen da Usategietako igandea. Goiz-eguerdi bitartean Andra mari dantza taldearen alde dirua biltzeko, talo postua jarriko du Altxatak Lizaetan. Udalaren eskutik 18:30etik 21:30era Gaubela taldearen erromeria izanen da. Bitarte horretan Altxatak ostua jarriko du frontoian pintxo eta bokadiloak ere eskainiz. Urriaren 19rako, igandea, goiz eta arratsalde ostatu an txandak egiteko gurasoen laguntza beharrezkoa dela gogorazi du Altxatak.

Bezperarako ere ekitaldiak aurreikusita dauka Euskara batzordearen eskutik. Larunbatean 18:30ean *Kokakola eta barea* antzerkia izanen da kultur etxean; Ramon Agirre eta Inazio Tolosa aktore ezaunuen eskutik. Ondotik plazan Beira taldearen emanaldia izanen da, pintxoak, gaztain erreak eta sagardoarekin batera.

Bisita gidatuak Usategietan

Urriaren 1ean hasi zen 2014ko Etxalarko Usategietako sare bidezko uso harrapaketa sasoia. Urriaren 3an berri, tradizio xahar hau ezagutzeko bisita gida-

tuak martxan jarri ziren; aurtengoarekin 12 urte betetzen direlarik bisitak hauek antolatzen hasi zirenetik. Urtero bezala, azaroaren 20ra bitarteko ortziral, larunbat eta igandeetan buztuko dira bisitak, goizeko 9:30ean, 11:00etan eta 12:30ean. Bisitaren iraupena, 60 minutu ingurukoa da eta prezioa 4 eurokoa pertsonako; 10 pertsona baino gehiagoko taldeek berriz 3 euro ordaindu behar dituzte pertsonako. Interesatuak (690) 26 77 56 telefonora deitu behar dute edo usategiak@etxalar.org helbidera idatzi.

Su egurra

Etxeko su-egurra nahi duena urriaren 31 arte pasa liteke Herriko etxeko idazkaritzatik eskaera egitera eta 6,40 euro ordaindu beharko da horretarako. Aurten ere bi modu egonen dira aukeran. Bata ohikoa, norberak egiten du



ARGAZKIAK: ARANTXA BIZENTE ETA IRUNE ELIZAGOIEN

EH zuzenean programatik Etxalarrera

Joseba Olagarai herritarra ETB 1 eko Euskal Herria Zuzenean programan kazetari lanetan dabil aurtien ere. Urriaren 3an Etxalar herria aurkeztu zuen programan eta urriaren 8an Elizagoien ahozko grabazioa egingo du.

bere egur lotea. Bestela, udala arduratuko da egur lotea atera eta bezeroak errandako lekura eramateaz.

EGA edo C1 ateratzeko ikastaroa

Asteazken behin 2 orduko ikastaroa eskaintzen da atariko edo idazlanak lantzeko. Izena emateko Bortzirietako euskaltegiara deitu: 948637796.

Hegaztien jardunaldiak

Irailaren 27an, Etxalaren, migrazioan dauden hegaztien behaketa eta txokolatada izan ziren Lizaletako zelaian.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN ETA LOREA ARANGOIA

Ahozko ondarearen dokumentala

Euskara mankomunitatearen eskutik, Bortzirietako ahozko ondarearen dokumentala egiten ari dira herrian azken egunetan. Herri bakoitzeko euskara batzordeak bere gain hartu ditu zenbait lan eta duela hilabete batzuk hasi ziren gidoia prestatzen eta horren barruan zenbait erredakzio egiten dira: ohiturak, lanbideak, bokata egitea, neskato lana, ela-ela... Urriaren 3an eta 6an egin zituzten grabazio lanak.



BORTZIRI
UNIOI ANAIK
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 205 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

ZUBIONDO
Jatetxea
angardotegia jatetxea

Alasta karrika
TEL: 948 641 478 BERA NAFARROA

F. LANCHAS
Akutadorea eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzalea
Jantzea
Mota gurtietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

KIROLA → URRIKO LEHEN ASTEBURUAN

Nafarroako Enduro Openeko azken proba Irrisarrin egin da

Aretxabaletako Markel Uriartek irabazi du txapelketa

TTIPI-TTAPA

IrriSarri Landek Nafarroako I. Enduro Openeko azken proba antolatu zuen. Abentura parkeko instalakuntzetan egin zen urriaren 4an eta 5ean. Azkenean, Aretxabaletako Markel Uriarte Urrutia suertatu zen txapeldun, Hondarribiako Beñat Oronoz Gorrotxategi eta Elgetako Txomin de Vega Izagirreraren aitzinetik.

Horrez gain, Four Cross (mendiko bizikleta diziplina bat) egiteko aukera izan zuten 8 eta 13 urte arteko haurrek, eta Funbox Factory-ren eskutik, Dirt Jump erakustaldia eskaini zuten

Martxel Arribillaga, Ibai Gaztelumendi eta Mikel Lazkanok.

Irrisarriko zirkuituak, banaz bertze, 15 km eta 900 metroko desnibel metatua ditu. Automatikoki neurtutako hiru zirkuitu izan ditu, eta haiek lotzeko, neutralizatutako hiru zati. Arratsaldean parte hartzaileentzako festa ere izan zen; DJak, haurrentzako Four Cross lagunarteko lasterketa, Dirt Jump erakustaldia eta sari banaketa.

IrriSarri Land Enduro proba Nafarroako I. Enduro Openeko hiru garrena izan da. Sakana Krew, Cyclo Bike eta IrriSarri Bike izan dira antolatzaileak. Lehen lasterketa Arbizon egin zuten maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean, eta bigarrena Zubirin, irailaren 7an.



UTZITAKO ARGAZKIA

Four Cross proban parte hartu zuten herriko gaztetxoak.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA / TESTUA: JOXEAN ORTEGA

Giro ederrean joan dira Sanmigelak

Bestak giro ederrean joan dira berriro ere. Hurrengo urtekoen zain gelditzen gara... geroz eta guttiago falta baita!!! Bertze urtetan bezala, kontu ezkor barkarra utzi dute: herrian barna egindako pintadak eta saskibaloiko saski bat hautsi dutela. Udala lanean ari da hau dena moldatzeko eta egileekin solasten saiatuko da berriz horrelakoak ez errepikatzeko. Herria guztiona dela gogoratu behar da eta geronek ez badugu zaintzen eta errespetatzen nork eginen du?

zalain
JATETxea - RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
www.zalainjatebisa.com

zalain

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

José I. Gonzalez Enguita
pinturak

barrikadak eta fatxadak
tel. 666 235 466

ALANBONILLA, S.A.

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

ARANTZA

GIZARTEA → HAUR ESKOLARI LAGUNTZEKO

Pelle Ttikiren aldeko jostailuen azoka egingen dute Baserritarren Egunean

Erabiltzen ez
diren jostailuak
biltzen ari dira

Nerea ALTZURI

Hezitzaile eta guraso-
ek Pelle Ttiki Haur Esko-
laren alde lanean segi-
tzen dute. Azaroaren 1ean
egiten den Baserritarren
Egunean, adibidez, biga-
rren eskuko jostailuen
azoka egingen dute. Horre-
tarako, etxean erabiltzen
ez diren jostailuak edo
egokia izan daitekeen jos-
tetako materiala biltzen
ari dira. Joan den ortzegu-
nean hasi ziren eta bertze
bi ortzegunetan, urriak 16
eta 23, 17:30etik 18:30era
Herriko Etxeko Gorapera
eraman daitezke. Emate-
ko jostailu edo materialik
izanez gero, eta egun hori-
rietan ezin bada hurbil-
du, 663 695410ra deitu
eta antolatzaileak bila joa-
nen dira.

Kultur Egunak

Euskara Batzordeak
antolatuta, Kultur Egu-
nak izanen dira urriaren
31, azaroaren 1 eta 2an.
Azaroaren lehenean,
XIX. Baserritarren Eguna
izanen da eta egunaren
antolatzailea den Ekaitza
Elkarteak egun hau aitzina-
tera ateratzeko herrita-
rren laguntza eskatu du
eta azokan parte hartze-
ra animatu ditu.

Azokara baserriko
produktuak, nekazal tres-
nak, eskulanak eta azien-
dak ekar daitezke. Azien-
dei dagokionez, ardi eta
ahuntzen kasuan, guttie-
nez zazpi buruko loteak
ekartzearen alde 40 euro
emanen zaizkio jabe ba-
koitzari. Abreetan, gehie-
nez hiru buruko loteak
izanen dira eta buruko 10
euro ordainduko dira; be-
hikietan, bi buruko lotea
ekarri behar da guttienez
eta 15 euro ordainduko
dira buruko.



Bigarren eskuko
jostailuak biltzen
ari dira hilabete
honetan Gorapean.

Gazta eta ahari lehia-
ketak ere egingen dira: gaz-
ta bakoitzeko 15 euro
emanen zaizkio lehiaki-
deari eta horrez gain, le-
hen saria 60 eurokoa izan-
en da, bigarrena 40koa
eta hirugarrena 20koa.
Ahari lehiaketan, lehen
sariak 50 euro hartuko
ditu eta bigarrenak 25.

Parte hartu nahi du-
ten herritarrek hilaren 23a
baino lehen arduradun
hauei erratea nahitaez-
koa da: azienak ekar-
tze kotan Iker Iguzkiagi-
rri abisatu, postua pa-
ratu nahi bada Gabi Goia
edo Ixabel Danborienari
eta gazta lehiaketan par-
te hartzeko Mirari Maiz
edo Gurutze Pikabeari.

Elkartetik laguntza ere
eskatu dute. Mahaiak
muntatzeko urriaren 31n,
18:00etan plazan hitzor-
dua jarri dute eta azaroa-
ren 1ean, ordu berean,
bildu eta frontoia garbi-
tzeko gelditu dira.

Gainerakoan, urriaren
31n, 3-11 urteko haurren-
tzat ipuin kontalaria izan-
en da Baskulan 17:00-
etan. Ondotik, txokolata-
da izanen da Guraso El-
kartearen eskutik. 19:30-
ean, *Arrakala* dokumenta-
la eskainiko da, heteroa-
rauei buruzkoa, eta ondo-
tik eztabaida izanen da
Gazte Asanbladak anto-
latuta.

Azaroaren 2an, 17:30-
ean Ekaitza Elkartean,
mus eta partxis txapelke-
tak izanen dira.

Udal informazioa

Urriko udal informa-
zioan, Amabirjinetako
gastuen berri xehea eman
dute. 15.000 euro gosta
dira bestak eta %40 arra-
tseko musikan joaten da.
Herri bazkaria aurrekon-
tutik kanpo dago, parte-
hartzaileak ordaintzen
baitu eta bestetako pro-
grama ere iragarkia jar-
tzen dutenek ematen du-

tenarekin ordaintzen da.

Bertzalde, herriko lan-
gileak ur isuriak konpon-
tzen aritu dira. Ur mozke-
taren bat egin da eta egin-
dako lanean lau isuri aur-
kitu dituzte. Azken aldian,
ur depositua ez dela be-
har bezala betetzen ere
ikusi dute eta deposituan
isuri haundiren bat ote
dagoen susmoa dute.

Herriko langileei dago-
kionez, irailaren 9ra arte,
Ibai Etxeberria aritu da.
Lanpostuak urriaren 31ra
arteko luzapena zuenez,
INEMen arabera, langa-
bezian denbora gehien
zeraman Juan Mari Inda-
koetxea Maiz, irailaren
10etik kontratua akautu
arte lanean ariko da.

Udaletik herrian auto-
ak ongi aparkatzeko ere
eskatu dute. Zakurren
kaken arazoak jarraitzen
duela eta arratsetan libre
dabilzan zakurren zaun-
kengantik kexuak jaso di-
tuztela ere adierazi dute.

"TELLETXEA"
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatzeko sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESACA • T. 619 418 683 • john.telletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

A

aterpe
albergas jostailuak

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua

© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

IMANOL ITURRIA
ZURGINA

Enpresa eta partikular

T. 661 577 137
E-posta: imaturria@hotmail.com

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Zalaingo langileek bat egin dute Condessa taldeko lantegietako mobilizazioekin.

LANA → 24 ORDUKO LAN UZTEA EGITEKOA DUTE URRIAREN 15EAN

Lan egoera salatzeko mobilizazioak Zalainen

Lehengaia falta dela eta egoera traketsen segitzen du lantegiak

TTIPI-TTAPA

Condessa Taldeko Zalain Transformados lantegiko langileek taldeko lantegi guztietan planteatu den mobilizazio egutegiarekin bat egin dute. Urriaren 8an bi orduko geldialdia egin zuten eta hilaren 15ean 24

orduko lanuztea eta Gas-teizen egitekoa zen manifestazioan parte hartzeokoa ziren.

Langileen Batzordeak jakinarazi duenez, «lantegiak egoera traketsean segitzen du, lehengai faltagatik, eta uztailaren 14tik Konkurtsoa izateko egoeran egonik».

Zalainen mobilizazioekin bat egin duten ELA, LAB eta CCOOko ordezkariak aipatu duteenez, «nagusien aldetik ez da informazio txukunik ematen, nahiz eta behin

eta berriz informazio osoaren eskaria egin». Bezeroei eskariak ezin hornituz segitzen dute gaur egun eta zenbaitzuk, arazo honen aitzinean Zalain baztertu eta bertze hornitzaileengana jo dutela salatu dute.

Mobilizazioekin, dagozkien bideragarritasun planak aurkeztea eta enplegua eta langile guztien oraingo baldintzak bermatuko dituen plan industrial bat aurkeztea dute helburutzat langileek.

ARKUPEAK ELKARTEA

85 urte eta Platino eta Urrezko Ezteiak bete dituzten bazkideak omenduko dituzte urriaren 16an

TTIPI-TTAPA

Bazkidearen Eguna ospatuko du Arkupeak Elkar-teak ortzegun honetan, urriak 16, Donezteben. Aurten ere, 85 urte eta Platino eta Urrezko Ezteiak egin dituzte bazkideak omenduko dituzte. 11:00-etan meza izanen dute eta ondotik opariak banatuko dizkiete omenduei. 14:00etan bazkaria eginen dute kiroldegian eta 19:45 arte dantzaldia izanen dute. 20:00etan aterako dira autobusak.

OMENDUAK

Platinoko Ezteiak: Luis Sorzabalbere eta Trinidad Arruabarrena (Hondarribia). **Urrezko Ezteiak:** Juan Bereau eta M^a Asuncion Mazizior (Arantz), Agustin Agirre eta Roxari Alkaiaga (Bera), Jose Jabalera eta Josefa Ubric (Bera), Juanito Maritorea eta M^a Joakina Eraso (Berroeta), Miguel Joakin Noble eta M^a Dolores Mindegia (Ezkurra), Jose Belarra eta Asuncion Telletxea (Doneztebe), Jose Antonio Elizegi eta M^a Carmen Berroeta (Goizueta), Norberto Irureta eta M^a Carmen Gamio (Iruita), Bernarda Alzuarte eta Fco Jabier Danboriena (Berroeta), Sabino Alduntzin eta M^a Pilar Martinez (Leitza). **85 urtekoak:** M^a Carmen Lasa (Donamaria), M^a Josefa Ustarroz (Oronoz), Ines Arozena (Ara-no), Asuncion Martikorena (Bera), Roman Goikoe-txea (Bera), Asuncion Lasarte (Leitza), Carmen Cordoba (Amaiur), Jose M^a Olazar (Elgoriaga), Estefania Telletxea (Elizondo), Soledad Urrutia (Amaiur), Miguel Deskarga (Eratsun), Santiago Olasagasti (Etxalar), Dolores Lujanbio (Goizueta), Gregoria Etxegia (Goizueta), Josefa Zubieta (Goizueta), Maria Zozaia (Igantz), Juanita Arrizurieta (Leitza), Martin Iribarren (Igantz), Trinidad Arruabarrena (Irun), Crispulo Zelaieta (Iruita), Visitacion Gallego (Bera), M^a Isabel Irazoki (Etxalar), Julia Olano (Leitza), M^a Jesus Azkarate (Leitza), Rosario Monaco (Leitza), Maria Sestorain (Leitza), Carolina Santos (Lesaka), Jose Arozena (Urroz), Nazario Larraburu (Iruña), Mikaela Iturralde (Ziga), Teresa Hualde (Baiona).



URBEN ARKITEKTOS
ETXEGINTZAN AHOLKULARITZA

ENERGIA ZIURTAGIRIAK
TASAZIO HOMOLOGATUAK
PERITAZIO INFORMEAK
ZAHARBERRITZEAK
ERAIKUNTZA
PROIEKTUEN GAUZATZEA
ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
(ITE)



TELF. 688 88 77 77 estudio@urbenarquitectos.com

URBEN EASO 77 3.1 ARANTZA, AZKILLARREA 23. DONOSTIA, EASO KALEA 77,7° www.urbenarquitectos.com

SUNBILLA

KULTURA → IRAILAREN 26AN

Seigarren dantza jaialdia ere bikaina izan da

Maidor PETRIRENA

Seigarren urtez segidan dantza jaialdia egin dute. Ikuskizun ederra, paregabea, dantza ezberdinez osotua eskaini zuten irailaren 26an eta jende aunitz bildu zen frontoian. Hasiera ttikienek eman zioten Txulalai eta Zapatain dantzatzuz. Ondoren koxkorren taldeak Zie-go eta helduek Gipuzkoa dantzatu zuten. Neska koxkorrek segituz, Matelota dantza egin zuten eta ondoren ttikien taldeak berriz Neskatxa eta

Jokua dantzak eskaini zituzten. Helduek berriz ere txanda hartu zuten Larrain-dantzarekin. Ondotik koxkorrek Gorulari, Kontradantza eta Borobila dantzatu zituzten. Gizonezkoek Xemeingo Ezpatadantza eta koxkorrek Bailaos eta Arin latin dantzatu zituzten eta emanaldia bukatzeko helduek Sunbillako jota eta Porrusaldada. Azken dantzak dantzari guztiek egin zituzten elkarrekin: Txapeloa eta Barraskilloa.



Ba al zenekien

Ulibeltzak Mendi taldeak ez zuela Beriaineara igotzerik izan irailaren 28an, baina otordu eder bat eginez aprobetxatu zuela eguna.

MENDI BIZIKLETA LASTERKETAK

Koldo Herrera Logroñon garaile

M. PETRIRENA

Eneko eta Koldo Herrera anaien, Caja Ruralek antolatutako BTT martxako karrerak bukatu zituzten irailaren 21ean. Irailaren 28an, berriz, Open Diario de Navarrak antolatutako karrera Logroñon izan zuten. Honetan Eneko 7. postua lortu zuen eta Koldo anai gazteenak lehenengoa. Urriaren 5ean, berriz ere Logroñon jokatzen bigarren karreran Eneko 5. postua eta Koldok bigarrena lortu zuten. Urriaren 4an Eneko, Aiako Harriako BTT martxako ibilbide laburra egin zuen (35 kilometro), bigarren postua lortuz.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Dantzari ttikienak eta koxkorragoak, irailaren 26an eskainitako emanaldian.



ARGAZKIA: SUNBILLAKO ESKOLA

Ikasturteko lehen ateraldia egin dute Bertizera

Urriaren 3an irteera egin zuten eskolako ikasle guztiek Bertizera. Pozez ikusten zitzaien irteera zutelako, baina ttikienei autobusean joatea zen ilusio gehien egiten ziena. Herriatik autobusez Narbartera joan ziren eta handik oinez Bertizera. Bi taldeetan banatu ziren Bertizeko jarduerak egiteko. Batzuk 10:00etatik 12:00etara eta bertzeak berriz 12:00etatik 14:00etara. Bazkaldu eta jolas-teko tartea izan zuten. Arratsaldeko 4etan berriz ere herrira bueltatu ziren poz-pozik dena ongi atera zelako. Argazkian, Haur Hezkuntzakoak irakasleekin.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA


Beira taldearen emanaldia kanpinean

Urriaren 4ean hasi zen Malerrekako Kultur Ibilbidea Ariztigain kanpinean. Beira taldeak bertso musikatua eskaini zuten eta aukera izan zen 800 dukado emakumeen mendi maratoiaren kanta entzuteko. Talde honek sortutako kanta izan da hau.



6 SARRERA
ZOZKETATUKO
OTUGU
urtean zehar

BERAKO IGERILEKUA
Julio Caro Baroja 2
31.760 BERA
Tel: 948 630 215

GIZARTEA → UDAZKENEAN MANKOMUNITATEAN

Kontsumitzaileen Bulegoak hamabortzero eskainiko du zerbitzua

Iratxe Kontsumitzaile Elkartearen eskutik

Marga ERDOZAIN

Malarrekako mankomunitateko kontsumitzailearen udal bulegoak aurtengo udazkenean ordutegi hau izanen du: urriaren 24an, azaroaren 7 eta 21ean eta abenduaren 5 eta 19an. Zerbitzu honek dohaineko bitartekaritza eta laguntza juridikoa eskaintzen du Iratxe Nafarroako Kontsumitzaileen Elkartearen eskutik. Bertan bideratzen diren keak eta galderak gai hauen ingurukoak dira: etxebizitza, aseguruak, banku eta aurrezki kutxak, etxeko zerbitzuak, tailerrak eta zerbitzu teknikoak, ad-

ministrazioa, gure kontsumoari buruzko guztia...

Bulego honetako zerbitzua jaso ahal izateko aldeztu behar da, Mankomunitateko telefonora deituz (948451746).

Emakumea eta kirola

Emakumea eta kirola kanpainaren baitan bi ekimen egingen dira herriaren urriaren 31n. 10:30ean azoka dagoen txokoan, stand bat jarriko da hurbiltzen diren emakumeei, pisua, tentsioa eta gisakoak neurtzeko. Neurketak egingen zaizkie eta aholkuak emanen zaizkie elikadura eta kirolari buruz. Gero, 11:30ean, Mankomunitatean, Emakumea eta kirolari



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Errekako dantzariak Iruñea Kantuan II jaialdian ariko dira

Heldu den azaroaren 1ean (larunbata) Baluartan burutuko den Iruñea Kantuan II jaialdian Erreka taldeko dantzariak parte hartuko dutela. Ea iaz bezala, denok gozarazten gaituzuen. Animo neskak! Erreka dantza taldea emanaldiz emanaldi dabil azken hilabeteotan. San Pedro bestetako emanaldiaren ondotik, uztail bukaeren Baztandarren Biltzarrean egon ziren, abuztuan Ezkurra eta Legasako bestetan eta irail hasieran Eratsunen. Urriaren 5ean Bertizko Ate Irekien Egunean parte hartu zuten eta urriaren 11n Lesakako Harriondoa Kultur Etxean.



buruzko hitzaldi bat izanen da. Ekimen hau Osasun Etxetik, INAFI (Berdintasunerako Nafarroako Institutua), eta Nafarroako Kirol Institututik bultzatua dago.

Zinea

Urriaren 26an Erreka eta Mendaur guraso elkarteek zine sasoiaren bigarren emanaldia eskainiko dute, arratsaldeko 4:30ean *Perez ametsetako sagutxoa* eta 6:30ean *Malefica*.

Ba al zenekien

Niko Mindegia, gaur egun Hungariako Pick Szeged eskubaloia taldeko jokalaria, Espainiako selekzioarako deitu dutela, heldu den urriaren 29an eta azaroaren 1ean Austria eta Finlandiaren kontrako partiduetan aritzeko. Partidu hauek 2016an Polonian jokatuiko den Europako txapelketarako balioarriak izanen dira. Zorte on Niko!

Euskaltegia

Malerrekako Ika Euskaltegiak ikasturte berriaren abian jarri du. Osatu diren taldeetan oraindik bada apuntatzeko aukera, baita EGA edo C1 titulua lortzeko ikastaroan ere. Interesatuak 948 451555 telefonora deitzen ahal dute.

Salma INFORMATIKA

- INFORMATIKA TRESNEN SALMENTA
- ORDENAGAILUEN KONPONKETA

Etxera ere joaten gara

T. 948 451 846
info@salmainformatika.com
www.salmainformatika.com
Elizagibela, 2 • DONEZTEBE



Gure Haragia
Nuestra Carne

Inzakardi

- PINTURA LANAK OROKORREAN -

Eduardo Oyarzabal
m. 630 511 488

Inzakardi, 10
DONEZTEBE/SANTESTEBAN

AMEZTIA

HOSTALA BTT ZENTRUA OSTATUA JATETXEA

ASTEBURUKO MENUA 18€ HAURRENTZAKO MENUA 10€

ENTZALADAK PASTA FRESKOA SASOIKO BARAZKIAK PLATER KONBINATUAK

Ogitartekoak, sandwich-ak, hanburgesak...

T. 948 450 026 DONEZTEBE www.ameztia.com

ZUBIETA

GIZARTEA → URRITIK MAIATZERA

Ostiraletik igandera zabalik dago aurten Gaztegunea

Txas Esparza
da ikasturte
honetako
arduraduna

detan irekitzea,
17:00etatik 19:00etara.
Urritik maiatzera ego-
nen da zabalik.

Fermin ETXEKOLONEA

Txas Esparza da ikasturte honetan Txi-txilo elkarteko Gazteguneko arduraduna. Lehen astean zehar ere irekitzen zen, baina aurten gurasoek erabaki dute ostiral, larunbat eta igan-

**Udal eraikinen
garbiketa lanak**

Joan den urtean bezala, Lourdes Elizalde Mitxelena garbituko ditu medikuaren etxea eta udaletxea. Berea izan zen udaletxera aurkeztutako eskaintza bakarra.



ARGAZKIA: IGOR BABAZE

Igor Babaze, Patxi Indakoetxea eta Joseba Juanikorena herritarrek Mont Blancen izan ziren uztaillean. Gailur horretara ailegatu eta gero, aurrera begira ere seguru beste ateraldiren bat burutan dutela, mendirako afizio handia dutelako.

**No hay pais para
sosos**

ETB2ko *No es pais para sosos* saioko Bidasoaldeko programan aterara dira Zubietako jolaldunak eta Lurdes Eli-

zalde Mitxelena kanutilloak egiten.

Udal bandoa

Egur loteak atera ziren tokian enbor haundi eta zakar xamar ba-

tzuk soberan gelditu dira. Norbaitek hartu nahiko balitu enbor bakoitza 20 eurotan saltzen du Udalak. Interesatu-ek Herriko Etxean eman behar dute izena.

URROZ

OSPAKIZUNAK → HERRIKO BESTAK

Ederki joan ziren Sanmigelak

Herriko Etxeko
ostatua
hartzeko
deialdia egin
du Udalak

Irazu eta Zubeldia bertsolariekin, aizkora apostua, pilota partidak, haur jokuak, eta abar. Hurrengo urte arte!

**Ostatua errentan
emateko**

Bestak akittu bezala, ostatua ere itxita gelditu da. Hortaz, udalak erabakia hartu eta deialdia boletinean argitaratzeko bidalia du. Berehala izanen da eskuragarri deialdia Herriko Etxeko taberna eta etxebizitza errentan hartze-

Joseba URROTZ

Bertze urte batez ere, giro eta eguraldi politarekin pasatu ziren herriko bestak. San Migel egunean euri pixko bat egin bazuen ere, gainerakotan giro atsegina izan zen ekitaldi guztietarako. Herri bazkaria,



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ


Herri bazkaria eta haurren jokuak, herriko bestetan.

ko, beraz, interesa duena adin egon dadila.

**Kiki, Koko eta Moko
pailazoak**

Malerrekako kultur ibilbidearen baitan, Eus-

kara Zerbitzuak antolatu eta udalak lagunduta, Kiki, Moko ta Koko pailazoen emanaldia izanen da frontoian. Eguna: Urriak 25, ordua: arratsaldeko 5etan.



OSPAKIZUNAK → URRIAREN 5EAN

Kide berriak izendatu ditu Onddo eta Zizen Kofradiak

Julen San Miguel erremontelaria eta Lander Santamaria kazetaria, bertzeak bertze

Martin LARRALDE

Julen San Miguel Donztebeko erremontelaria, Lander Santamaria Elizondoko kazetaria, Ana Casares atleta, Eloy Moreno idazlea (*El boligrafo verde* eleberraren egilea, bertzeak bertze), Helena Bonhomme gastronomiako blogaria eta Gregorio Gi-

ménez Romero, Kataluniako pentsiodunen elkarteko demokratiko-ko presidente ordea dira Nafarroako Onddo eta Zizen Kofradiako Ohorezko kide berriak. Halaxe izendatu zituzten urriaren 5an Elgorriagan Kofradiak egin zuen hogeita batgarren besta egunean.

Ekitaldia, Iruñeko Santa Maria La Realgo ahots lodien abesbatzak kantatutako meza-
ren ondotik egin zen eta ospakizunean, bertze hainbat kofradietako kideek ere parte hartu zuten. Zubietako joaldunak eta txaranga ere karriz karriz ibili ziren.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Onddo eta Zizen Kofradiako kide berriak, izendapenaren ondotik.

Juanito Mariezkurenaren omenez egindako kaxuela lehiaketarako onddoak kanpotik ekarri behar izan dituzte aurtengoan, oraingoz ez baita onddo eta ziza gehiegirik gure mendietan. Halere, 200 bat kilo sukaldatu eta dastatu zituzten Elgorriagan, «gehienak Ultzamatik ekarriak».

Ondoren, San birila hotelaren izenean, pisu handienazuen onddoaren lehiaketa egin zen lehen aldiz eta oraindik

gutti agertu direnaren seinale, bi aurkeztu zituzten. Lehen postuan Cristina Olazar geratu zen eta beretzat izan zen saria: *Sueño San Birila* izeneko aste bukaera hotelean. Ondotik, lehiaketan egin ziren onddoak, gazta, urdiazpikoa eta txistorra dastatzeko aukera izan zuen plazarabildu zen jendeak. Besta akitzeko, bazkaria izan zen bainu etxean. Txarrena, eguraldi pattala izan zela goizez eta onena, be-

rriz, eguna borobila izateko Onddo eta Zizen Kofradiak egindako lan bikaina.

Malerreka kantuz

Malerreka kantuz egin zen urriaren 4an. Bertako eta inguruko herrietako jende aunitzek parte hartu zuen. Ikusgarria izan zen ongi kantatzeko jarri zuten arreta. Beraiek gustura eta inguruko entzuleak gusturago. Ea hurrengoan jende gehiago animatzen den.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

ESKAINITZA: Nordikoak

edredoi fundak • albormozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toaillak

Tafalla, 13 • IRUNEA • 948 230 634

ITUREN

GIZARTEA → AZKEN UKITUAK EMATEN ARI DIRA UDALETXEAN

Eskolakoentzat ingelerako gela berria moldatzen ari dira

Euskal Herriko finalean ariko da azkenean Ander Erasun

Arkaitz MINDEGIA

Pulunpa Eskolako ikasle eta irakasleek laister estrenatu eta erabili ahal izanen dute ingelerako gela berria. Herriko etxean moldatzen ari dira, udal bulegoaren solairu berean. Udaletxeko langileak azkeneko ukituak ematen ari dira laister gelataz gozatzeko.

Hitzetik hortzeran Joaldunen Eguna

ETBko Hitzetik hortzera programaren urriko lehenbiziko saioan, 30. Joaldunen Egune-ko irudiak ikusi ahal izan ziren. Herri bazkarian egin zuten saiotxoaz gain, goizean goizetik ere bertsolariak joaldun eta trikitilariekin batera ibili ziren Amezitia auzoko

baserrietan. Kanpotik etorritako bertsolariek herrikoen laguntza izan zuten lan horretan. Honela, Jexux Mari Irazurekin Joxe Mari Fagoaga aritu zen eta Miren Amurizarekin Egoitz Gorosterrazu. Bertan bizitzen den giroaz eta bertso politik berriro telebistatik ikusteko aukera izan genuen.

Bertze aldetik, Iturenen Bertso eskola osatzeko asmoa dute. Oraingoan, bileratan daude eta hurrengo alean jarriko ditugu honen inguruko berriak.

Erasun Euskal Herriko finalean

Ander Erasunek Nafarroako lehenengo mailako aizkolari txapelketako finala jokatu zuen urriaren 5ean Etxarrin eta bosgarren postuan sailkatu zen.

Bertze aldetik, aitzineko alean alpatu genuen Euskal Herriko finaletik kanpo gelditu ze-

la Erasun. Kanporaketako sei onenak sartzen ziren finalean eta bera zazpigarren izan zen. Baina badirudi Nafarroako txapeladuna surretatu zen Floren Nazabal oinazeak dituen ez duela parte hartuko finalean. Beraz, Aurtizko aizkolariak izanen du finalean parte hartzeko aukera, urriaren 26an Beasainen.

Aurtizko bestak

Aurreko alean Aurtizko besten berri ematen hasi ginen. Gazteak gogotsu eta indartsu dabilta antolaketa lanean. Urteko azken besta hauetan denetik izanen da, aizkora apostua, haurrentzat jokoak, trikitixa jaialdia, herri bazkaria... eta seguruenik baita berrikuntzak ere. Xehetasun gehiagorekin hurrengo alean programa guzia jarriko dugu, baina hala ere agendetan apuntatu, bixita bat egiteko eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Jabier Sein txirrindularia liderra da Diario de Navarra BTT Openean

Jabier Sein BTTko txirrindularia azkeneko txapelketan dabil burubelarri, Diario de Navarra Openean. Jadanik bi karreratan parte hartu du. Irailaren 28an Logroñon bigarren geratu zen eta urriaren 5an, berriz, irabaztea lortu zuen Oteizan. Horrela, lider jarri da sailkapen nagusian.

nola ez ederki pasatzeara etortzeko. Bestak azaroaren 7tik 11ra izanen dira.

Azaroan artisauak Aurtitzen

Hilabeteko bigarren igandean Iturenen os-

patzen da Artisanen lan azoka. Azarokoa Aurtitzen izanen da, bestak direla aprobetxatuz.

Jakinarazi digutenez, gisa guzietako postuak izanen dira eta animatu zaitezte bueltaxka bat ematera.

ttipi-ttapa
Merkatu ttikia

Tel. 948 635 458
www.ttipi.net

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel. 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 5EAN

Giro ederrean joan da Bertizko Ate Irekien Eguna



Doneztebeko
Mendi
Abesbatzak
emanaldia
eskaini zuen

TTIPI-TTAPA

Bertizko Jaurerria Parke Naturalak ate irekiko jardunaldia ospatu zuen urriaren 5ean. Eguraldi gorabeheratsua izan zen, baina halere jendetza bildu zen ekitaldi ezberdinetan parte hartzeko asmoarekin.

Jardunaldia igande goizeko 10:30ean hasi eta 19:30ean bukatu zen eta programaren baitan haurrentzako birziklatze-saioak, pintura, yoga, argazkilaritza, dantzariak, egurrezko eskulturen erakusketa, informazio-mahaiak, eta Bertizko Jaurerriko Lorategi Historiko-Artistikoan eta basoan egindako doako bisitak izan ziren, bertzeak bertze. Arratsaldean emanaldia eskaini zuen Doneztebeko Mendi Abesbatzak.

Bertizko Parke Naturalak 33.894 bisita jasotitu aurtengo lehen seihilekoan, 2013an aldi berean izandako bisitak baino % 10 gehiago. Lorategi historiko-artistikoan, aurtengo urtariletik ekaina bitarte 18.123 pertsona sartu dira, naturako interpretazio-zentroan, 9.817, eta basoan, 14.821 pertsona.

Rural Kutxan kreditua ematen dizugu

**EZ BAITIOGU INOIZ
UTZI ZUGAN SINISTEARI**

Rural Kutxan kreditua ematen jarraitzen dugu partikularrei, autonomoei, ekintzaileei, enpresei eta erakundeei, beren proiektuak egiteko aukera izan dezaten. Inolako laguntzarik behar baduzu, edo gure kredituei buruzko argibideak nahi badituzu, zure zain egongo gara gure bulegoetan, beti bezala.


RURAL KUTXA

MALERREKA

GIZARTEA → UDABERRITIK HONA

Hamar auzo-konpostaketa eremu martxan paratu dira

Dagoeneko 90 familia inguru daude apuntatuak

Marga ERDOZAIN

Dagoeneko 90 familia inguru daude apuntatuak auzo-konposta egiteko, Malerrekan une honetan dauden 10 auzo-konpostaketa eremuak erabiltzaile bihurtuta: Donezteben 47 familia dira eta lau gune martxan dira: Elizagibela, Zazpigurutzeta, Mourges etorbidea eta Rosa Seminario; Iturenen gune bat eta 2 familia; Zubietan gune bat eta hiru familia, Legasan gune bat hiru familiarekin eta Sunbilla 19 familia bi gunetan (Gindal karrika eta Leku Eder).

Datu hauek utzi ditu Malerrekako Mankomunitateak otsailean abiatu eta ekainean akitu zen kanpainak. Konpostaje kanpaina honek bizati izan ditu. Lehendabizikoan, Sunbilla, Elgorriaga, Ituren, Zubietan eta Donezteben murgildu ziren. Herri horietan gutun bat bidali zen etxe guztietara eta bilera informatiboak burutu ziren: konposta aukeraren zergatia azalduz (zergatik konposta eta ez atez atekoa edo bosgarren edukiontzia); heziketa jardunaldiak burutuz eta herritarrek planteatzen zituzten zalantzak eta galderak argituz. Aldi berean bertze bilera bat egiten zen konpostajearen proze-



UTZITAKO ARGAZKIA

Auzo-konpostaketako guneetako bat Doneztebeko Zazpigurutzetan.

suan sakonduz eta materiala banatuz (konpost-ontzia, aireagailua eta gida txiki bat). Apirilean eta maiatzetan bigarren faseari ekin zioten (Doneztebe, Donamaria, Oitz, Urrotz, Beintza-Labaien, Saldias, Eratsun, Ezkurra eta Bertizaranan) lehendabiziko faseko lan ildoak jarraituz.

400 FAMILIA GEHIAGOTAN ETXEO KONPOSTA EGITEN DA

Eremu edo gune hauetaz gain, aipatu behar da 2014an Malerrekan ia 400 familietan banatu direla etxe konpost-ontziak. Gogoratu behar da bazela jendea konposta etxean egiten zuena, 2010 urteaz geroztik zonaldeko interesatuei Mankomunitatea konpost-ontziak banatzen ari baita. Urte hauetan, 2010. urtetik 2014. urte-

ra, 150 ontzi inguru banatu dira eta dagoeneko azpimarratzen ahal da Malerrekako %25 familiek konposta egiten dutela. Ontziak eskuratzeko aukera oraindik bada, horretarako Mankomunitatetik pasatu behar da.

PROIEKTU PILOTUA

Aipatu behar da konposta egiteko proiektu pilotu hau Nafarroako Hiri hondakinen Partzergoarekin elkarlanean sortutakoa dela eta bere helburu nagusia hiri hondakin solidoen bolumena murriztea dela, zaborraren %30-40 birziklatu daitekeen materia organikoa baita. Helburu hori lortzeko Nafarroako Legediaren barrenean Hondakinen Kudeaketarako Planak ezarritako zenbakiak jomuga du (gaur egun sortzen diren hondakinak %10ean gutxitu eta

bio-hondakinen bilketa bereizia martxan jartzean, hauen %50a biltzeko helburuarekin).

Erabiltzaileek, nahi izanez gero, prozesua gainbegiratzeko laguntza tekniko eskatzen ahal dute, parte hartzaileentzako etxeetara bisitak ere egiten dira prozesuaren martxa aztertzeko, eta, orokorrean, erabiltzaileek izaten ahal dituzten galderak eta zalantzak argitzen dira. Hau guzia kudeatzeko Mankomunitateak zabor teknikaria badu. Argibide gehiago izateko edo konpostagailua jasotzeko 948 45 17 46 telefonora deitu behar da. Horretaz gain, Malerrekako Mankomunitateko web orrian gaitzen inguruko gida eta informazioa agertzen dira, bai gaztelaniaz, baita euskaraz ere (www.malerrekakomankomunitatea.com).

MANKOMUNITATEA

Liztor beltzaren kontrako kanpaina abiatu dute udazkenean

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateak liztor beltzaren (*vespa velutina*) kontrako kanpaina abiatu du, «ingurumenaren etsaia», denen etsaia» delakoan eta herritarren laguntza ezinbertzeko dela jakinarazi dute. Horretarako, informazio biorriko bat argitaratu dute eta TTIPI-TTAPA aldizkariarekin batera banatuko da. Bertan, intsektu kaltegarri honi buruzko informazioa ematen da, zer egin dezakegun, tranpak egiteko modua eta habiak aurkitu eta suntsitzeko moduak agertzen dituzte.

Izan ere, udazkenean, hostoak erortzean errazago ikusten dira habiak. Aurten guttiago direla uste dute adituek, baina komeni da neurriak hartzea. Norbaitek habiren bat harapatuko balu eta tokia edo arbola zeharkako marra batekin markatu gabe baldin badago, Malerrekako Mankomunitatera (948 451746) deitu behar du, habia non dagoen azalduz. Arduradun batek lokalizatu eta markatuko du eta habia pozoitzeko egoki prestatuak diren langileak eta Mankomunitateko ardura-duna joanen dira eta egiten dute egin beharrekoa. Ondotik, marka jarriko dute.

Hau dena erregin berriak (kolonia sortzaileak) habitik alde egin baino lehenago egin behar da (abendutik) eta Malerrekako Mankomunitateak koordinatuta.

PROPOSAMENAK → HAUR ETA HELDUENTZAT

Eskolaz kanpoko ekintza ugari udazkenean

Irakurle taldea ere osatu nahi da

Juana Mari SAIZAR

Udazkenarekin batera, eskolaz kanpoko ekintzak hasten dira. Aurten gaztetxoenek multikirolak landuko dituzte astelehenetan eta psikomotrizitatea ostegunetan. Astelehene-tako taldean 11 lagun bildu dira eta ostegunetan berriz 14. Klaseak 16.30ean hasiko dira eta ordubete pasatxo iraungo dute. Taldeen ardurana Ruben Goñi kirol teknikaria izango da.

Irakurle taldea herrian

Euskara taldea ere bildu da, eta hainbat

proposamen eta ideien artean irakurle taldea osatzea proposatu dute. Taldea osatzeko 7 edo 8 pertsona behar-ko lirateke eta baldintza bakarra irakurtzea gustuko izatea da. Edo-nork parte hartu dezake eta ideia hilean liburuak irakurri ondoren behin bildu eta denon artean liburuak biltzen dituen ideiak, sortutako sententziak... lantzea da helburua. Konpromisoa eskatzen dute eta beharbada hilean behin asko iruditzen bada bi hilabetetik bilduko dira. Hori dena taldeak erabakiko du. Ahoz aho zabaltzen ari den albistea da baina beti bezala Sastinen jarriko da izen-emateko papera.

Bestalde katekesiko taldeak ere martxan



ARGAZKIAK: UZTITAKO ARGAZKIA

Antzerki taldea, hango eta hemengo oholtza gainera

Aresoko Antzerki Taldeak herrian egiten dituen emanaldiak nahikoa ez eta Euskal Herrian barna bere lana erakusteko asmoa du. Momentuz azaroaren hasieran Goizuetan izango dira eta azaro bukaeran berriz Berastegin. Seguru bisitatzen dituzten bazterrak barrezka jarriko dituztela!

jarri nahi dituzte. Momentuz aukeratutako eguna asteartea omen da. Inaxio apaizak libre duen eguna da eta berak klaseetan presente egon nahi omen du.

Herri-lanak

Udarako hartutako bi herriko langileei beste hilabete batez kontratua luzatzea erabaki

du udalak. Eluseder parragean desbrozatzeko lanak egiteko hartu da erabakia eta zerbitzu anitzeko langile finkoarekin batera ariko dira lanean.

Joneren urtebetetzea

Datorren Urriaren 24an, Jone Lozano herriarren urtebetetzea

ospatzeko afaria egingo da Pake toki elkartearen. Urtero bezalaxe, arratsaldeko 7etan argazkia aterako da.

Etxebizitzaren harira

Urriaren 9an egin zen etxebizitzaren inguruko bilera informatiboa. Datorren aldikarian esango dizuegu bilerak zein emaitzak utzi dituen.

URRIAREN 25 ETA 26KO ASTEBURUAN

Baztan Abentura Park erdi prezioan ezagutzeko aukera izanen da

TTIPI-TTAPA

BKZ-Nafarroa Abenturak Ezagutu Baztan Abentura Park kanpainaren berri eman nahi du.

Urriaren 25ean, Elizondoko Beartzun auzoan dagoen Baztan Abentura Park-eko kirol abentura guztiak egiteko aukera paregabea izanen dute Bertizarana, Malerreka, Bortziria, Leitzaran, Ultzama, Zugarramurdi-Urdazubi eta Baztanekin muga duten Iparraldeko herri guztietako bizilagunek. Tirolina erraldoiak

Txikiak-Ferrata bidea handi naiz txikia, Arroil jeitsiera, pendulo txiki (30 metro) edota ausartenentzako 100 metroko pendulo saltoa egiteko aukera izanen dute eta prezioetan %50-60ko deskontuak izanen dituzte etortzen diren guztiek.

Eta urriaren 26an, berriz, aukera berdina eskainiko dute, baina Baztango jendeari zuzenduta. Plaza mugatuak direnez, aitzinetik erreserba egin beharko da.

Bertze aldetik, azaroaren 2an Baztan Salto Extrem le-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eskualde osoko jendeak saltoak erdi prezioan egiteko aukera izanen du.

henengo jaialdia izanen da. 100 metroko pendulotik salto ikusgarriak izanen dira (edo-

nok partu har dezake). Bada-go zer egin Baztango Beartzun auzoan.

GOIZUETA

GIZARTEA → UDALAREN AZALPENAK AINTZAT HARTU DITU ETA EPAIA IRMOA DA

Auzitegi Nagusiak atzera bota du ikurrina jartzeagatik ezarritako zigorra

Nafarroako Gobernuak ez zion aurretik jakinarazi udalari ikurrina kendu behar zuenik

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak prozeduran egin dako akats batengatik, Udalak ez du zigorra bete beharko. Udalak ikurrina jarri zuen udaletxean, *Eman hitza Nafarroari, eman Euskal Herriari* pankartaren alboan. Iruñeko Administrazioarekiko Auzitegiak iragan apirillean zigortu zuen udala, baina, helegitea jarri ondotik, auzitegiak arrazoi eman dio, eta atzera bota du zigorra.

Salaketa jarritakoan gobernuak arrazoitu zuen Goizuetako Udalak «EAEko bandera ofiziala» jarri zuela pankarta baten alboan eta ordenamendu juridikoaren aurkako neurria zela. Lehen auzialdiko epaite-



UTZITAKO ARGAZKIA

43 familiak eman dute izena auzo konpostan

Irailaren 25etik martxan dago Errekaundin kokatutako auzo konpostako gunea. Oraingoan 43 familiak eman dute izena eta seguru hemendik aurrera familia gehiago animatuko direla zaborra gutxituz birziklapena bultzatzera. Horretarako Mendiak Mankomunitatera (948 510 444) deitu behar da formakuntza, ontzia eta konpostagailuko giltza jasotzeko. Argazkian ageri denez, irailaren 25ean Vermican enpresako Joseba Sanchezek konpostagailuaren inguruko azalpen teoriko eta praktikoak eman zizkien erabiltzaileei.

giak arrazoi eman eta gero, udalak apelazio errekurtsioa aurkeztu zuen. Alde batetik, argudiatu zuen Nafarroako Sinboloen Legearen arabera bandera kentzeko eskaera egitera behartuta zegoela go-

bernua eta ez zuela egin. Bestetik, udalak berak ikurrina kendu egin zuen urriaren 22an, eta hala jakinarazi zion epaitegiari. Auzitegi Nagusiak aintzat hartu ditu azalpenok, eta haren epaia irmoa da.

Areto-futbola

Berriz ere lanean hasia da Umore Onako areto-futbol taldea Gipuzkoako hirugarren mailan lehiatzen. Hau idazterakoan, jokaturako bi partidak galduak zituen.

OSASUN ZENTROA

Dementia edo jokaera berezia duten pertsonak etxean zaintzeko aholkuak emanen dituzte Leitzan

TTIPI-TTAPA

Leitzako Osasun Etxeak antolatuta hitzaldia izanen da urriaren 20an, Leitzako Udaletxeko lehen solairuko aretoan. Heldu den astelehenean 15:30ean hasiko da eta Beintza-Labaien bizi den Aintzane Mariezkurrena erizaina izanen da hizlaria. Etxean dementia edo jokaera bereziak dituzten pertsonen zaintzari buruz solastuko du eta horregatik, zaintzaile horiei dago zuzendua saioa. Bi ikuspegiak, adituarena eta zaintzailearena izanen ditu oinarri hitzaldiak.



Víctor Pérez Agrícola S.L.

NEKAZARITZAKO MAKINERIA, LOREZAINZA, JOSTAILU-DENDA

T. 948 70 39 27 - Zaragozako errep., 37.km - 31300 - TAFALLA (Nafarroa)

www.victorperezsl.com



BAZTAN ETA MALERREKAKO TAILER KOLABORATZAILEA:

BAZTAN MOTOR S.L.

Zaldubia Ind. 31730 IRURITA
T. 948 45 21 19 - 948 58 06 55
M. 629 03 09 28

- Bilgailu berrien eta okasioko salmenta, aztertutako eta berrmatuak
- Marka guztietako auto, lur orotariko eta furgonetan konponketa mekaniko eta elektrikoak
- Txapa eta klase guztietako karozerien konponketa: burdinezkoa, aluminiozkoa eta poliesterezkoa
- Blac-Hawk bankadako kolpeen konponketa eta P.188MK2 neurtzailea
- Pintura sintetikoa, akrilikoa eta ur-pintura (ekologikoa)
- Bilgailuen pertsonalizazioa, aire girotuaren birkarga, bolazko krokagailuen eta klase guztietako osagarrien muntaiak
- I.A.T. aurreko linea
- Bezeroentzako grua zerbitzua



KULTURA → URRIAREN 20TIK 26RA

VII. Mikologiaaldia iristear da

Irakurle taldea berriro ere martxan da

JM BARRIOLA

Zazpigarrenez antolatatu du ALKE Leitzako Kultur Elkartek herriko zenbait eragilarekin batera Leitzako Mikologiaaldia. Urriaren 20tik 26 bitartean egingen da. Azken urteetako egitaraua mantenduko dute. Asteazken zehar lagunarteko mendietan ibiliko dira perretxikoak biltzen eta ostiralean, urriaren 24an, bildutakoak karra-pera eraman beharko dituzte arratsaldeko 7etatik 8etara. Larunbatean goizeko 09:30ean, Mendibil Aurrerako menditaldearen eskutik, plazatik abiatuta, guraso eta seme-alabekin onttoak biltzera joateko aukera izanen da. Arratsaldean sailkatu egingen dituzte bildutakoak. Igandean, urriaren 26an, goizeko 11:30etik aurrera, erakusketa mikologikoa ikusteko aukera izanen da, baita pintxo goxoak dastatzeko aukera ere. Haurrentzako tailerrak ere antolatu dituzte eta eskolan asteazken zehar egindako lanak ere ikusgai jarriko dituzte.

Irakurle taldea martxan

2013-2014 ikasturtean Leitzan irakurle talde bat osatu eta martxan jarri zen. Ikasturte osoan zehar elkartu da taldea, hamabost bat lagun, hilean behin saioak egin zituzten. Ekimenak izandako harrera ikusita, datorren ikasturtean

ere segitzea erabaki dute. Hilabeteko bigarren asteazkenean elkartuko da taldea, arratsaldeko 6:30ean. Ikasturtean zehar liburuen idazle pare bat ere gonbidatzeko asmoa dute, saio berezia eginaz. Lehendabizikoa gonbidatua Eider Rodriguez izanen da. Urriaren 27tik 28ra da Leitzara eta irakurle taldeko kideekin batera Haragia liburua solasaldian parte hartuko du. Irakurle taldea irekia da eta herritar guztiek har dezakete parte. Izena emateko ez da deus ordaindu behar, eta euskaraz zerbitzuan (948 510814 edo laga@iparmank.org) edo liburutegian (948 510379 edo biblioteca.leitza@cfnavarra.es) egin daiteke.

Aurrera eguna umore onean

Urriaren 4an ospatu zuten Aurrera Elkarteko bazkideek Aurrera eguna. Goizean hasi eta egun osoko besta egin zuten. Txistulariek dianarekin alaitu zituzten herriko kaleak eta txokoak, Aurrerako kirolari gaztetxoak futboleko eta pilotari ziren, zaldiekin ere agertu ziren perra taldekoak eta BTTkoak beraien itzulian ere osatu zuten. Eguerdian 130 bazkidek bazkari ederra dastatu zuten eta arratsaldean dantzari saioa izan zen. Aurten aspaldiko partez etxitsuak hausteko jokoa egin zuten eta sari ederrak ere banatu zituzten. Luntxa iluntzean eta ondoren musika. Oso pozik daude antolatzaileak eta balorazio ona egin dute.



ARGAZKIAK: UTZITAKO ARGAZKIA

Irailaren 27an egin zen Kaskagorren penthathlona

Duela 25 urte Donostiako eta Leitzako gazte batzuen burutaziorik hasitakoa da Kaskagorren penthathlona eta iraileko laugarren asteburuko larunbatean ospatzen da. Ondarretako hondartzan igeri egin ondoren, Nafarroako mugaraino bizikletaz etorri, Leitzako herrira laisterka ailegatu eta bertan egiten dira azken bi frogak, bazkaria eta parranda. Hasierako urteetan 20 bat lagun elkartu ziren eta azkeneko urteetan 80tik gora bizikleta kontu daitezke, eta azkeneko bi frogatan ehundik gora lagun. Helburu nagusia lagun arteko egun zoragarri bat igarotzea da.

INGURUMENA

Geroz eta arrakasta gehiago auzo-konpostak

JM BARRIOLA

Irailean herritarrekin hitzaldiak eta erakustaldiak antolatu ditu Mendialdea Mankomunitateak. Dagoeneko 67 familiek egiten dute konposta eta baita elikagai bankukoak ere. Maiatzean egindako kanpainak indar handia izan zuen, 54 familia gehiagok eman zuten izena eta horietatik 25 banakako sisteman aritzen dira. Eskariari erantzuteko bi gune berri ere jarri dituzte martxan, bat Manuel Lasarte auzoan eta bestea Elbarren auzoan Arakindegia jabetxearen inguruan. Horretaz gain, martxan zeuden beste hiru zabaldu dituzte. 240 familiek konposta egi-



ARGAZKIA: ARANTXA IPARRAGIRRE

Jende ugari hurbildu zen Mankomunitateak eskainitako informazioa entzuterako.

teko tokiak dute bertan, gutxi gora-behera astero tona bat organiko bideratuko dira modu honetan. San Jose auzoko bizilagunak ere eskatu dute bertan auzo-konposta gune bat jartzea. Oso harrera ona izaten ari da orokorrean herritarren artean.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Arrakasta handia izan dute Energia jardunaldiek

Hiru astetan zehar egin dira hitzaldiak eta tailerra. Lehenengo hitzaldia Xabier Zubialdek eman zuen eta energia arloan Euskal Herrian dugun gabezia izugarria utzi zuen agerian. Energia burujabetasuna lortzeko pausoak ematea garrantzitsua dela ere aurreratu zuen. Bigarren hitzaldia Goieneko energia kontsumitzaileen kooperatibak eman zuen: energia ereduak aldatzeko lanetan ari diren bolondresen eskutik. Azkenik herriko LeitzEKO kontsumo taldeko Maria Arretxek tailerra egin zuen energia fakturak ulertu ahal izateko eta etxetan aurrezten ikasteko gomendioak ere eman zituen. Jende ugari gerturatu da eta garbi gelditu da gai honen inguruan dagoen kezka eta ezagutza falta.

BAZTAN

GIZARTEA → UHOLDEEN BALORAZIOA

Kantauriko Ur-Konfederazioaren utzikeria salatu du Udalak

Mantenimendu lanen premia azpimarratu du

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 4ko uholdeek sortutako kalteen balorazioa egin du Udalak. Azpiegitura publikoetan 2.346.821,64 euroko balorazioa egin du eta udal eraikinetako kalteak 992.794,82 eurokoak dira. Hauen artean, Francisco Joaquín Iriarte Zahar Etxea izan da kalterik handienak izan dituen eraikina. Udalaren balorazioaren arabera 464.604,91 euroko kalteak izan zituen eta 165.735 euroko kalteordaina jasoko du.

Horretaz gain, lur eremu pribatuetan 120.000 inguruko galerak izan dira, nekazariek eta EHNE eta UAGN sindikatuek aurkeztutako aurrekontuen arabera. 50 Hektarea inguru belagi, 2.500 metro kubiko lur, 5 Tona bazka eta 230 silo bola, eskoilerak, paretak eta alanbrezko hesiak galdu dira. Baina, Balleko Etxetik diotenez, «au-

rrekonturik gabe izandako kalteak zenbatzeko zailtasunak izan arren, bertze hainbertze ere izan daiteke».

Aseguruen Partzuer-goetan oraindik eskaerak jasotzen ari dira, baina dagoeneko 3.742.169 euro ordaindu dituzte. 549 eskaeretatik 538 kudeatu dira, %98.

Kantauriko Ur Konfederazioak onartutako aurrekontuan 19 aktuzio eginen dituzte Baztanen, 913.000 euroko inbertsioa denera. Hala ere, Udalak salatu nahi du Kantauriko Ur Konfederazioaren utzikeria ibaiaren mantenimenduan: «Uste dugu kalte aunitz saihestu zitezkeela errekan behar diren mantenimendu lanak egin izan balira». Udal Ur Konfederazioaren aurkako erreklamazio bat jartzea aztertzen ari da.

Egoera hau izanik, Baztango Udalak jakinarazi nahi die herritarrei bai Nafarroako Gobernuan eta baita Madrilen ere kalteen %100 ordaintzeko eskatuko duela. «Hondamendi



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Elbeteko Errotabideko zubia moldatzen hasiak dira.

egoera batean udal batek ez duelakoz bere gain hartzen ahal lana eta gastu guztia. Gobernuen betebeharra da egoera hauetarako poltsa bat izatea eta baliabideak bideratzea», dio. Oraindik erantzunik ez dutela jaso ere jakinarazi zuten.

Zergen salbuespenari dagokionez herritarrei jakinarazi nahi die zergen erreziboa beti bezala bideratuko zaiela. Zergen salbuespena nahi duenak udalera joan beharko du eskatzera eta horretarako

eredu bereziak prestatu dituzte tramitea errazteko. Aseguru konpainiatik kalteen %100 kobratu duenak ez duela salbuespena izateko eskubiderik izanen ere jakinarazi dute. Eskae-rak azaroaren 30a baino lehen egin beharko dira.

PLANGINTZA

Bertzalde, etorkizunera begira bi gauza planteatzen dituzte udal-letik. Alde batetik, udazken honetan ibaiaren egoera aztertzeko eta uholdeek eraginda-

ko kalteak saihesteko plangintza bat landu nahi du. Horretarako ezinbertzekoa ikusten du Ur Konfederazioa, Nafarroako Gobernuko Ingurumen departamentua, Udal eta herritarren arteko eztabaida foroa sortzea, «proposamen guztiak aztertu eta zein neurri hartu nahi ditugun denon artean erabaki behar dugu». Bigarrenik, Baztango uholdeen inguruko larrialdi plana garatu nahi dute, lan hau hurrengo udaberrian egiteko helburuarekin.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Dantzari Eguna ospatu dute Iruritan

Giro ederrean eta eguzkipean ospatu zuten Iruritako Dantzari Eguna urriaren 5ean. Lauzpaborts urteko neska-mutikoetatik hasi eta 40 urteak pasatuak dituzten beteranoetara, ehun bat dantzarik egin zuten erakustaldia, Iruritako besta tiikien barnean jendez gainezka zegoen plazan.

Gierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Hurriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

GIZARTEA → IKASLEEI ZUZENDUA

Sentsibilizazio kanpainaren baitan argazki eta lelo lehiaketa

Bidelagun
Elkarteak eta
Baztan,
Urdazubi eta
Zugarramurdiko
Gizarte
Zerbitzuek
antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Sentsibilizazio kanpainaren baitan, *Bestearen larruan jarri, zu zeu zertarako zaude prest?* izenburupean argazki eta lelo lehiaketa antolatu dute Bidelagun Elkarateak eta Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko Gizarte Zerbitzuek. Lehiakideek Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdiko ikastetxe edo Gizarte Zerbitzuen bidez parte hartzen ahal dute eta lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 14a izanen da.

Lehiaketa ikasleei zuzenduta dago eta lau kategoriatan banatua egonen da: Lehen Hezkuntzako 3. eta 4.

mailak; Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak eta DBHko 3. eta 4. mailak.

Aurkezten diren lan guztiek argazki bat eta lelo bat izan behar dute, *Bestearen larruan jarri, zu zertarako zaude prest?* gaiaren inguruan. Leloak, guttienez esaldi bat eta gehienez hiru esaldi izanen ditu, euskaraz. Lanak formatu digitalean aurkeztuko dira azaroaren 14a baino lehen bidelagun@hotmail.com helbide elektronikoan edo Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko ikastetxeetan edo Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan.

Epaimahaia Bidelagun elkarteak kide batek, Gizarte Zerbitzuetako langile batek, argazkilarik batek, euskara teknikariak eta Baztango udaleko zinegotzi batek osatuko dute eta lan sarituak abenduaren 5ean aurkeztuko dira, Boluntarioen Egunaren barruan.



UTZITAKO ARGAZKIA

ELA eritasunarengatik busti da BRT Menditarrak taldea

BRT Menditarrak errugbi taldeak denboraldiko lehen partida erraz irabazi zuen urriaren 4an Lekarozen. Horretaz gain, Amaiurko sokatira taldearen erronkari eutsiz, ELA eritasuna ezagutarazteko eta ikerketa bultzatzeko busti ziren partidaren ondotik. Orain, eurek ere erronka luzatu diete La Unica rugby taldeko emakumeei, Xixongo errugbi taldeari eta Lekarozko instalazioak zaintzen dituen Patziku Pernaute oronoztarrari. Batzar Nagusiko kideak ere busti ziren urriaren 11n eguerdian Balleko Etxearen aitzinaldean.

BALLEKO BATZAR NAGUSIAK ETA UDALAK

Adin ttikiko emakume batek jasandako eraso sexista salatu dute

TTIPI-TTAPA

Herriko adin ttikiko emakume batek urte eta erdian jasandako eraso sexistak salatu dituzte Balleko Batzar Nagusiak eta Udalak.

Batzar Nagusiak eta Udalak onartutako akordioak dioenez, «hau ez da gertakari isolatu bat izan, egungo jendartean bizi ditugun sexuen arteko botere harremanen ondorio zuzena baizik». Bi erakundeek ustez, «gaur egungo errealitateak erakusten digu gazteen artean indarkeria sexista badagoela eta gertakari hau adinez txikikoen artekoa izatea kezagarria da». Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko modu bakarra berdintasuna dela uste dute, «eta horretarako emakume eta gizonen parte-hartze aktiboa ezinbertzekoa da».

Nafarroako Adingabeen epaitegi-

ak emandako autoarekin erabateko desadostasuna adierazi dute Batzar Nagusiak eta Udalak: «Mutirik urruntze agindua dauka ekainetik eta iraillean ikasturtea bi gazteek ikastetxe berean matrikulatuta hasi zuten. Epaileak erabaki du aldentze neurria duen salatuari lehentasuna ematea eta biktimaren gainean jarri dute urruntze aginduaren pisu guztia».

Hau dena kontuan hartuz, bere elkartasuna helarazten diote erasoa jasandakuen emakumeak eta bere familiarik eta «edozein motatako indarkeria sexista, agerian dagoena eta ikusten ez dena» errefusatzen dute. Bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, osoa eta koordinatua garatzeko konpromisoa ere hartu dute.









IGANTZI NAFARRIOA
Tel +34 948 926 922
www.irrisaniland.es

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → OTSAILEAN GERTATU ZEN

Zortzi herritarrek isuna jaso dute plazan elkartzeagatik

450 euroko multa jaso du bakoitzak

Margari eta Koro

2014 urte huntan bi gauza harrigarri bizi ditugu herri mailan. Lehenbizikoa urte hasieran izan zen, Herriko Etxean banderak zintzilikatu behar izatea- rekin (sekulan ikusia ez ginuena), niorek konprenitzen ez duen lege batengatik. Eta orain, irailaren, bigarren harridu-

ra: zortzi herritarrek sekulako isuna jaso dute (450 euro bakoitzak), igande eguerdi batez, plazan, ostatuko atean aperitifa hartzen ari ziren momentuan, hogei lagun baino gehiago elkartzeagatik. Hau ere kanore gutti duen lege baten ondorioz. Bi kasuetan lege betetze kontuak dira, eta kitto, baina penagarria da legeak nola aplikatzen diren: hain zorrotz batzuenak, eta hain malgu bertzeko batzuenak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Irailaren 26an, isunen kontra egindako prentsaurrekoa.

SOS Alkerdi

Zugarramurdi eta Urdazubi herriek Alkerdi auzoan egiten dute muga, eta azken hilabete hauetan alarma gorria piztuta dago auzo honetan, harrobiko lanak azkarki haunditu behar dituztela, eta ingurumeneko kalte haundiak sortuko baitira.

Lan horiek bertan behera gelditzeko eskatuz, irailaren 28an Xaretako lau herriak kurritzen zituen ibilaldi bat egin zen. Jendeketa



ARGAZKIA: INTERVIDEO

SOS Alkerdi ibilaldia Zugarramurdiko plazan.

haundia bildu zen ekitaldi honetan, Urdazubiarrak batez ere, baina baita gaineko hiru herrie-

takoak ere, beren babesa eta laguntza eskaintzen.. Animo aunitz SOS Alkerdikoei!

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → UZTAILEAN EGIN ZEN AKELARRENEAN

Udalekuaren balorazio ona egin dute gurasoek

Lehen aldiz egin da eta esperientziaren beharra eta balioa goraipatu dute

Iñigo IMAZ

Gan den uztailean Zugarramurdiko Akela-

rrenean antolaturiko udalekuaren gainean balorazio baikorra egin du Guraso Elkarteak. Uztailean zehar, astelehenetik ortziratera bitartean, eta goizeko 10etatik eguerdiak 1ak arte, 30 ume inguruk parte hartu zuten Itziar, Izaskun eta Maialen begiraleek antolaturiko ekitaldi ezberdinetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Urdazubi eta Zugarramurdiko neska-mutikoei lehen aldiz izan dituzte udalekuak.

Aurtengoa lehen aldiz antolaturiko udalekuak izan da eta esperientziaren beharra eta balioa goraipatu nahi izan dute gurasoek. Izan ere, gurasoen asmotariko bat, umeek udan

ongi pasatzeaz aparte, urtean zehar Zugarramurdi eta Urdazubiko eskoleetatik kanpo ikasten duten umeak eta herrian bertan ikasten dutenak elkartzea izan da. Doike, Zugarramur-

diko nahiz Urdazubiko Herriko Etxean laguntza ere eskertu nahi izan dute, eta aurrerantz ere elkarlanean jarraitzeko asmoa adierazi dute prentsa ohar bitartez.

KULTURA → URRIAREN 26AN, 16:00ETAN

Oskorri eta artista andana kantuz ariko dira ikastolaren alde

Larreko kulturgunean izanen da

Franck DOLOSOR

Oskorri musika talde ospetsua eta Ipar Euskal Herri osoko artista ainitz kantuz ariko dira Zaldubi ikastolaren alde urriaren 26an, 16:00etan Larreko kulturgunean. Boz asko preziatzen ahalko da kantaldi hortan, hauen artean Magali Zubillaga, Izarrak, Maddi Zubeldia, Artxeroak, Amaia Rioupeyrous eta Erramun Martikorenarenak bertzeak bertze.

Nicolas gogoan

Bete beharko ez diren 4 hilabeteko presondegi zigorra ematea eta urte batez gida baime-na kentzea deliberatu du Baionako epaitegi korrekzionalak iazko

abenduan Helbarrun auzoan autoz haur bat jo eta hil zuen azkain-darraren kontrako afe-ran. Istripua Herrixka alde hortan gertatu zen mutiko batek bidea zeharkatzen zuelarik oinezkoen pasabidetik autobusa hartzeko. Azkainetik zetorren gidariak ez zuen mutila ikusi goizeko 7:30 baitziren eta argi guti baitzen gune hortan. Nicolas Lartigue 12 urteko senpertia Baionako ospitalerat eraman zuten helikopteroz baina bertan hil zen oren batzuen buruan.

Epaiketatik ateratzeko biktimaren gurasoek erran zuten lasaiago sentitzen direla orain. Badakite Nicolas ez zaiela itzuliko eta nekez bizi dute dolua aldikza ospitalerat joan behar baitute medikuek beren burua zain dezaten. Erakutsi zaien elkartasuna



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Nicolas Lartigue hil zen 12 urteko mutikoaren gurasoak Baionako auzitegitik ateratzen urriaren 7an.

bihotzetik eskertu dute aitamek. Istripua izan zenetik segurtasun neurriak hobetu dira toki hortan eta abiada muga apaldu baina Nicolasren gurasoek diote jende aintzek lege haustek egiten dituela orain ere, hil zen mutikoarentzat emanak diren lo-reen ondoan.

Defentsak gidariaren xuritzea galdetzen zu-

Ba al zenekien

Hatsa Elkarteak antolatuta Bardoitzara (Urbasa) ateraldia egingen dela urriaren 26an. 08:30ean dute hitzordua Larraldean eta egun-pasa egingen dute, olerkiak irakurri, txalaparta, Legaireko jentilbaratzak eta Lezea bisitatuz, Mirutegiko gailurrean bazkalduz...

en eta ez du baztertzen helegitea aurkeztea. Urriaren 7an hamar eguneko epea hasi zen erre-kurtso hori plazaratze-

ko baina lerro hauek idazten ziren momentuan abokatuek ez zuten oraindik deusik egin zentzu horretan.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Farmazialariak kexu

Frantziako gobernua legea aldatzekotan da sendagai batzuk supermerkatuetan eta internet bidez saltzeko eta horrek farmazialarien haserrea sortu du. Buruilaren 30ean, Ipar Euskal Herriko 10 botiketarik 9 hetsiak egon ziren, horien artean Senperekoak. Arratsaldean 300 bat profesional bildu ziren Frantziako gobernuak Baionan duen ordezkartzaren aintzinean eta hantxe zegoen bertzeak bertze Evelyne Poncini 1999az geroz Senperen lanean ari den farmazialaria. Botikari hunek ez du batere begi onez ikusten lege aldaketa, bere ustez aholkurik ez baizaie eskainiko bezeroei supermerkatuetan, gehiegikeria frango gertatuko baita eta horrek arriskuak haundituko baititu kontsumitzaileentzat. Evelyne Poncinik azpimarratzen du farmazialari aunitzen diru iturriak apalduko direla eta hori arazo handia izanen dela gazteentzat ez baitituzte oraino ordaindu lanean airtzeko egin zituzten diru prestamu guztiak. Arau berriekin gaur egun duena baino toki haundiagoa beharko du eta horregatik Ibarrun aldeko Lizardia komertzio gunerat joanen da Evelyne Ponciniren farmazia 2015eko urte hastapenean.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km. tara

PLATER KONBINATUAK - OGITARTEKOAK
MINUAK ENKARGUZ - PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanc@gmail.com

SARA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 19TIK 29RA

Ekitaldi bereziak antolatu dituzte Usoaren Besta ospatzeko

Igande honetan Usoaren Kofradiaren desfilea egingen da Larrunen

Joana GERENDIAIN

Urriaren 19tik urriaren 29ra usoaren besta ospatuko da Saran. Gertakari horren kariatara egunero ekitaldi bereziak antolatuak izanen dira.

Urriaren 19an, igandearekin, Larrunen goizeko 10etan Usoaren kofradiaren desfilea izanen da. Astelehenean arratsaldeko 4etatik goi-

ti pilota partidak izanen dira plazan. Urriaren 21ean, astearte arratsoko 6etan Zazpiak Bat taldeak dantza ikusgarri bat emanen du plazan. Urriaren 22an, asteazken goizeko 11etan usotegiaren bisita bat antolatua da. Izenak aitzinetik eman beharko dira turismo bulegoan. Urriaren 23an, ortzegunean Erlauntza abesbatzak kantaldi bat emanen du Santa Katalinako kaperan gaueko 8:30ean. Urriaren 24an, ortziralean goizeko 10etan herriaren bisita bat proposatua izanen da. Igandean, urri-



ARGAZKIA: WWW.DENA.FLOWS.COM

Napoka Hiria talde elgoibartarrak emanaldia eskainiko du igandean Santa Katalinan.

ak 26, goizeko 11etan usotegiaren bertze bisita bat antolatua da.

Aste osoan zehar Usoak sarean erakusketak ikusten ahalko da turismo bulegoan. Urriaren 15etik goiti herriko jatetxe guzietan usoa proposatuko dute beraien menuetan.

Usopop

Usopop elkarteak urriaren 19an, igandea-

rekin, kontzertuak antolatuko ditu Santa Katalina kaperan. Kaliforniako Dorian Wood kantaria eta Gipuzkoako Napoka Iria taldea entzuteko parade ukanen duzue. Kontzertuak arratsaldeko 5 etan hasiko dira eta sartzeak 6 euro balio du.

Kirol emaitzak

Kirol sasoi berria hasia da herriko taldeen-

tzat. Esku baloian, 11 urtez azpiko ekipak galdu du 21-4 Buroseko ekiparen kontra, 13 urtez azpikoek ere galdu dute Hendaiaren kontra 31-11, 15 urtez azpikoek Lucq de Béarn-en kontra galdu dute 25-18. 18 urtez azpiko ekipak Buros-en kontra irabazi du 17-10 eta seniorrek Escoubes-en kontra irabazi dute 22-14.



GRUPO TANATORIO TALDEA

IRACHE

MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

— TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA —

— LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK —



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako opaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Maite Iriarte Iantzi eta **Esteban Mendiburu Bidart**, Narbarte eta Azpilkue-
takoa, irailaren 27an NARBARTEN.

Jon Larrinaga Etxarri eta **Maite Yan-
guas Amatriain**, Donostia eta Irungoa,
Iturengoak, irailaren 27an.

Aritz Joseba Peña Escobar eta **Irina
Villanueva Negrete**, Iruña eta Bera-
koa, Igantziko San Juan Xarren, iraila-
ren 27an.

Peio Tomasena eta **Marlène Garcia**,
Sarakoak, irailaren 27an.

Olivier Brouiller eta **Christelle Goie-
netxe**, Sarakoak, urriaren 4ean.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen
atalean agertzea nahi badu, 948 635458 tele-
fonora deitu beharko du*



kukuka
Kupoi hau aurkeztuta
%15^{eko} DESKONTUA
arropan urriaren 16ak 30era

Zarpigintza, 1 • DONEZTEBE • 948 450 252

SORTZEAK

Arene Otxandorena Zubillaga, Dona-
mariakoa, irailaren 16an.

Ekhi Jaurena Eizagirre, Urdazubikoa,
urriaren 1ean.

Enara Barandarain Mitxaus, Areso-
koa, urriaren 3an.

Imo Lopez Rodriguez, Lesakakoa,
irailaren 17an.

Enara Ariztegi Antxordoki, Lesaka-
koa, irailaren 24an.

Xabier Mendiburu Elizondo, Legasa-
koa, irailaren 24an.

Oier Salaberri Bertiz, NARBARTEkoa,
irailaren 26an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen
atalean agertzea nahi badu, 948 635458 tele-
fonora deitu beharko du.*



**Rekordatorioak egiten
ditugu**

Nahi duzun argazki eta
testuarekin prestatua

ttipi-ttapa
Hortako b. 711659493 | 948 635 458

HERIOTZAK

Jose Antonio Gonzalez de Andres,
Elizondokoa, irailaren 26an, 79 urte.

Jose Cia Lazkoz, Leitzakoa, irailaren
26an, 87 urte.

Dionisia Lazkano Arrieta, Arantza-
koa, irailaren 27an, 92 urte.

Xanti Olaizola Mitxelena, Goizueta-
koa, irailaren 27an, 79 urte.

Dolores Escudero Santesteban, Zu-
bietakoa, urriaren 1ean, 94 urte.

Ana Garralda Labaien, Elizondon,
urriaren 5ean, 87 urte.

Ana Maria Muñoz Invernón, Dona-
mariakoa, urriaren 5ean, 96 urte.

Miguel Saralegi Zabaleta, Donama-
riakoa, urriaren 5ean, 80 urte.

Maixan Jorajuria, Sarakoa, irailaren
30ean, 100 urte.

Jose Esteban Mentaberri Etxeberria,
Zugarramurdikoa, urriaren 6an, 72 ur-
te.

Maria Angeles Huizi Gogortza, Lei-
tzakoa, urriaren 8an.



Jose Angel 'KOTTO' ALTZUGUREN PERURENA

Beran, 1966-III-03/Sorian, 2005-X-31

IX. URTEURRENA

*Eman zenuen bizia euskaragatik,
herriarengatik, Euskal Herriagatik,
eta azken bederatzi hilabeteetan
familia eta lagunei eman zenien bizia,
joan arte.*

ETXEKOAK



Anastasia ERRANDONEA ERRANDONEA

Beran, 2007ko urriaren 16an

VII. URTEURRENA

*Seguru urte aunitz pasako direla
eta hau zazpigarrena bertzerik ez dela izanen.
Baina urteak kontatu ahal izateak berak
zurekin ahazten ez garela adierazten du.*

ZURE FAMILIA



Lino INDAKOTXEA ARIZTEGI

Zubietan, 2009ko urriaren 20an

V. URTEURRENA

*Udazkeneko hostoen antzera joan zinen
eta gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko,
baina bizitzen garen artean,
ez zaitugu ahaztuko.*

ASKO MAITE ZAITUGU

IZASKUN, JONE, LANDER ETA FAMILIA




AZAROAK 1

Santu Guztien Eguna

LORE FRESKOAK

Falta direnak omentzeko



Santu Guztien egunean lore freskoak (moztuak eta landareak) hilerrietara eramateko ohiturari eusten dio jendeak. Horregatik, lore-denda eta mintegietan milaka lore izaten dira aukeran urte sasoi honetan, mota guztietako eska kizunei erantzuteko.

Krabelinak, krisantemoak eta **liliumak** dira gehien saltzen direnak eta aukera egokia dira frexko mantentzen direlako denbora dezentean. **Larrosak** eta **margaritak** ere aukera luenean artean egoten dira, sorta dotore bezain modernoak osa tuaz.

Koloreari dagokionez, berriz, **zuria** da gehien eskatzen dena baina bada **kolore biziak** eskatzeko joera ere: morea, fuk-sia, arro , horia... Lore sortari elementu **berderen** bat gehitzea ere gomendatzen dute. Hostoak, iratzeak, kamelia adarrak... loreekin konbinatzen badira, konposizioak itxura osoagoa lortzen du.

Lore sorta eta landareak jarriko diren euskarri edo ontziak ere badu garrantzia. Lore fresko hauek ez direnez oso maiz ureztatzen, **ontzia bera urez betea** egotea komeni da. Bestela, lore-dendetan saltzen dituzten **mossi esponjak** ere oso egokiak dira, hezetasuna mantendu eta loreari tente eusten detelako.



"Loreak dira eta hilerria munduko ditago"
"Ezkerreko hilerria ditago"

Anamary
LORE-DENDA

T. 948 451 758 - Intzukardi, 8 - DONEZTEBE

FLORISTERIA

IRIS
LORE-DENDA

DOMISAINDU
EGUNEPAKO
ESKANTZA
BEREZIAK
LOREAK ETA
LANDAREAK
ENKARGUAK
HARTZEN DIRA!

Jaime Urrutia - 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO

Lore-denda

ESTHER

Larunbat arratsaldeak
eta igandeak irekia

Krisantemoak, zuloak, zikloak
zenba artifizialak eta naturak

Bisitatu gure postea
Elizondoko ortegunetako merkaturan
eta Elizondoko herietan plaza

NARBARTE • T. 948 59 22 00

SOULE
HILETA ARTEA


T. 948 453 444 | M. 629 659 583
ARIZKUN



Donostia-Berri-Elizondoko
ORDUTEGIA 9.00 - 18.00 GUZTIAZ
18.15 - 20.00 ARRATZALDEZ

MerKaopari
www.merkaopari.es





DOMISAINDURAKO LORE ETA LANDARE ESKAINTZA ZABALA

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Erreserbatu
domisaindu egunerako loreak
eta mintegian gordeko dizkizugu

Astelehenetik larunbatera:
09:30-13:00/16:30-19:30
Igandeak: 10:00-13:00
Otsango auzoa - LESAKA
T. 948 637 826

AZAROAK 1

Santu Guztien Eguna



OMISAINDU EGUNEKO GOZOKIAK

Haize kruxpetak, santu hezurrak...

Hilerriko bisitaren ondotik, familiak mahaira bildu eta jaki gozoak dastatzeko ohitura izaten da. Data honekin lotuta, hauek dira gozotegietan aurki ditzakegun sasoiko gozokiak:

HAIZE KRUXPETAK: Tipikoak dira Aste Santu eta Omiasaindu egunean. Ura, gurina, azukrea eta gatz ximiko batekin egiten da ore, gero irina gehitu eta arrautzak azkenik. Olio ugaritan frijitu eta, ongi xukatu ondotik, azukre hautsa botatzen zaie gainera. Gozo-zaleenak krema, esne-gaina edota txokolatearekin betetako kruxpetak ere topatuko dituzte.



SANTU-HEZURRAK: Mazapan orearekin egindako tututxo hauek, duten hezur itxuragatik hartzen dute izen berezi hori. Santu-hezurak hainbat gaiekin betetzen dituzte gozotegietan: tradizionalenak arrautza gorringoarekin, baina badira txokolatez, marmeladaz, aingeru-adatssez... beteak. Norberaren esku gelditzen da gustukoena hautatzea.



HILLOBIAK ETA HILARRIAK

Hilerri-baratzeak

Euskal Herrian gairi, eta batez ere Ipar Euskal Herrian, hilerri-baratzeak nahiago dituzte arrazoi estetiko eta sinbolikoengatik. Jokabide berri honek gaurko hilerrien itsuskeriari buruzko gogoeta egitera gonbidatzen du. Horretan ari den elkarte bat ere bada antolatua, Lauburu Elkarte, eta hainbat Herriko Etxek (Ainhua, Itsasu, Senpere, Bidarra...) elkarte honekin bat egin dute hilerri-baratzeen proposamenak aitzinera eramateko.

Nagusiki, **lehengo ondarea inspirazio** iturri bezala hartu eta **ideia berriak sortzen** dituzte, oroitarri garaikideak osatuz.



Aukera handia kalitatezko produktuetan

Domisaindu egunerako
loreetan eskaintza zabala



Ongarriak eta
ongarritzeko gaiak

Landareak, loreak,
fruta-arbolak

Lore-konposizioak

Etxe barrurako zein
kanporo landare
eta arbolak

Dekorazio
osagarriak,
loreontziak eta
jardinerak

Lorategirako
erremintak



Landiflor

Landiflor zure lorelenda egunero irekia: 9.00 - 12.30 / 13.30 - 18.30
Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@venta-peio.com

Dantxarinea Ibañeta Valcarlos Behobia

www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es)





ARG.: JOSE MARI TELLETXE
Martinez eta Olaizola,
gustora iruñean lortu-
tako sariekin.

PILOTA → JAVIER HERNANDEZ ZENAREN OMENEZ

Iñigo Martinez eta Jon Olaizola txapeldun suertatu dira Iruñean

Beratarra sub-22 mailan eta lesakarra jubeniletan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako pilotari gazte onenak bildu dituen Javier Hernandez Memoriala jokatu da lehen aldiz. Irailaren 27an jokatu ziren bi finalak Iruñeko Labriten eta Bortzirietako bi pilotarik lortu zuten txapela janztea: Iñigo Martinez beratarra 22 urtez beheitiko kategorian eta Jon Olaizola lesakarra gazte mailan.

Jubeniletan, Jon Olaizolak Etxarri Aranazko Joanes Baikaioa izan zuen lagun aitzineko koadroetan eta 22-21 irabazi zieten Aitor eta Oier Etxeberria bizkaitarrei.

22 urtez beheitiko finala ez zen hain berdindua joan, baina emozioa izan zuen. Iñigo Martinez beratarra Zugarraldeko Asier Agirre izan zuen lagun aitzinean eta Iker Irribarria eta Jon Erasun gipuzkoarrei 22-17 irabazi zieten.

Gainera, pilotari nobleenari emandako Shanti Andia saria jaso zuen Iñigo Martinezek.

MALERREKAKO ESKUZ BINAKAKO XIII. TXAPELKETA

Izen emateko epea azaroaren 2ra arte zabalik

TTIPI-TTAPA

Erreka Elkarrekin antolatutako Malerreka XIII. eskuz binakako pilota txapelketan izen emateko epea zabaldu dute azaroaren 2ra arte. Heldu den urteko urtarilaren erdialdera hasita, zazpi kategoriatan banatuak ariko dira pilotariak: benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, jubenilak, bigarren mailako seniorrak eta senior elite. Kategoriatan lehiaketa irekia izanen da, senior elite kategorian izan ezik,

hemen pilotariak gonbidatu egingen baitituzte.

Kanporaketa moduan jokatuko da txapelketa eta finalak otsailaren azken astean edo martxoko lehendabizikoan izanen dira. Izen ematea posta elektronikoki bidez egin daiteke (salaa@gmail.com) eta izen emateko orrian, telefonoaren zenbakia eta posta elektronikoki helbide bat jarri behar dira. Parte hartzeko federazio lizentzia eguneratua edukitzea ere derrigorrezkoa da.

Udazken 2014

kantu afaria

AZAROAK 8 - 21:00etan
IBARDIN
MENDIKO SAGARDETEGIAN

45€ AFARIA + LIBURUA

Omenaldia

~ AGOITZ IRAZOKI ~
~ IKER MARIZKURRENA ~
Ama Guadalupe Hondarribiko Irainerako
eskualdeko arraunlariak

AFALONDOAN KANTUZ:

★ **BANKAKO MENDITARRAK** ★
★ **AITOR IBARRA** ★
★ **FRANTZISKO** ★
★ **ANJEL MARIEZKURRENA** ★

TXARTELAK SALGAI:

• **Mendiko Sagardotegian** •
• **948 630 302 telefonoan** •
• **670 365 011 telefonoan** •

ANTOLATZAILEAK:
ANJEL MARIEZKURRENA | MENDIKO SAGARDETEGIA

NAFARROAKO AIZKOLARI TXAPELKETA

Nazabalek bederatzigarrena jantzi du

Jon Rekondo bigarren eta Oihan Larretxea hirugarren izan ziren Etxarrin

TTIPI-TTAPA

Nafarroako aizkolari txapelketa nagusiaren finala jokatu zen urriaren 5ean Etxarri Arana-tzen. Pronostikoak bete eta bederatzigarren aldiz txapela jantzi zuen Floren Nazabalek, herriko semeak. Jon Rekondo leitzarria azpitxapeldun izan zen eta Oihan Larretxea hirugarren.

Aizkoran belaunaldi

berria badator, baina oraindik ere Floren Nazabalek bertzeen gainetik koxka bat edo bi goitiago dagoela erakutsi zuen berriz ere Etxarri Arana-tzen. Aizkolariek launa kanaerdiko, launa 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar zituzten eta Etxarrikoa, oinazeekin baldin badabil ere, hasieratik ibili zen aitzinetik. Lehen postu horretarako ez zen emozio handirik izan eta azkenean, 33 minutu eta 33 segundotan akitu zituen lanak, iaz Doneztebeko finalean baino 5 minutu gehiago behar izan zituen. «Asko sufritu



ARGAZKIA: DIARIO NOTICIAS

Floren Nazabal txapelduna eta Jon Rekondo eta Oihan Larretxea podiumean.

dut» aipatu zuen txapeldunak, disko-herniarekin minekin baitabil eta horrela segitzeko-tan, ez omen du urriaren 26an Beasainen jokatze-koa den Euskal Herriko finalean parte hartuko.

Bigarren posturako lehia gehiago izan zen Jon Rekondo eta Oihan

Larretxearen artean, baina azkenean leitzarria izan zen azpitxapeldun, iaz bezalaxe. 35 minutu eta 46 segundo behar izan zituen lana burutzeko, txapeldunak baino bi minutu luze gehiago. Oihan Larretxeak 48 segundo beranduago bukatu zuen lana, 36 minutu eta 34 segundotan.

SAILKAPENA

1	F. Nazabal	33:33
2	J. Rekondo	35:46
3	O. Larretxea	36:34
4	R. Saralegi	38:04
5	A. Erasun	40:39

Laugarren postua Ruben Saralegi leitzarrentzat izan zen eta bosgarren postua Ander Erasunek eskuratu zuen. Aurtiztarra ere arazo fisikoekin dabil eta ez zuen bere onena ematerik izan.

DUATLOIA → IRAILEKO AZKEN ASTEBURUAN

Errekako kirolariak bikain Nafarroako txapelketan

Sprint modalitatean bigarren izan da Iñigo Arregi sailkapen orokorrean eta txapeldun Santi San Miguel beteranoetan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Duatloi Txapelketan, sprint modalitatean, lana bikaina egin zuen Erreka Triatloi taldeak Valtieran.

Iñigo Arregi, Santi San Miguel, Rafa Maritxalar, Xabi Bañares Iñigo Mangado eta Izaskun Etxeberria oiartzu-arrak osatu zuten Errekako ordezkari-tza txapelketan.



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Ezker-eskuin: Maritxalar, Mangado, Arregi, Bañares, Etxeberria eta San Miguel.

pelketan. Denek ere lan bikaina egin zuten. Iñigo Arregi hirugarren izan zen proban, baina bigarren Nafarroako txapelketan (1:03:11). Santi San Miguel bosgarren izan zen eta lehenbizikoa beteranoetan

(1:03:55) eta Rafa Maritxalar zortzigarren orokorrean eta hirugarren beteranoetan (1:05:25). Xabi Bañaresek 34. postuan bukatu zuen eta Iñigo Mangadok 58.

Emakumezkoetan, Izaskun Etxeberria hi-

rugarren izan zen (1:25:42).

Beraz, maila bikaina erakutsi zuen Errekak. Horren erakusgarri, taldekako sailkapena izatekotan, orain Erreka txapelduna izanen zela sprint modalitatean.

HERRI KIROLA → IGANTZIN IRAILAREN 27AN

Nerea Sorondo eta Xabier Urrutia garaile arpana txapelketa mistoan

Sei bikote lehiatu ziren bigarren edizioan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako arpana txapelketa mistoa jokatu da bigarren urtez. Aurtengo ere, Igantziko bes-baitan jokatu da txapelketa eta parte hartu duten sei bikoteren artean, Baztan-Bidasoko Gure Kirolen Klubean aritzen diren Nerea Sorondo beratarra eta Xabier Urrutia arraioztarra nagusitu ziren. Beun-

tzako Mikel Eugi eta Sakanako Irati Astondoa bigarren izan ziren eta Berako Amaia Garcia eta Arraiozko Daniel Saldias hirugarren. Bi bikote hauen artean segundordiko aldeia izan zen.

Bikote bakoitzak 10 ebaketa egin behar zizkion etzanda jarritako 45 ontzako enborrari. Ondotik sailkatu ziren Lezagungo Ana Lopez eta Larragetako Alberto Oteiza, Iberoko Adrian Berruezo eta Lezaungo Itziar Nuñez eta Berriozarko Oier Aizkorbe eta Ilargi Gonzalez. Abiadurako proban



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Arpana txapelketan eta herri kirol jaialdian parte hartu zuten kirolariak ageri dira goitiko argazkian. Nerea Sorondo eta Xabier Urrutia txapelarekin, beheitian.

(korte bat zeinek azkarago eman), Ana Lopez eta Alberto Oteiza nagusitu ziren.

HERRI KIROL JAIALDI BIKAINA

Baina Nafarroako arpana txapelketa mistoaz aparte, herri kirol jaialdi bikaina ikusgai izan zen irailaren 27an Igantzin. Inaxio Perurena aritu zen harri jasotzen eta herriko gazteek, bi taldetan banatuak, proba konbinatu polita eskaini zuten, lasto altxatzen, zaku lasterketan, koxkor biltzen eta arpanan, bertzeak bertze.



SAILKAPENA

1	Nerea Sorondo-Xabier Urrutia	4:32
2	Irati Astondoa-Mikel Eugi	4:55.31
3	Amaia Garcia-Daniel Saldias	4:55.82
4	Ana Lopez-Alberto Oteiza	5:13
5	Itziar Nuñez-Adrian Berruezo	6:06
6	Ilargi Gonzalez-Oier Aizkorbe	6:08

HERRI KIROLA → EUSKADIKO TXAPELKETA

Txapela eta marka berria Xanta Souzarentzat txinga eramaten

Kasik 49 plaza egin zituen irailaren 27an Barakaldon

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean azpitxapeldun izan ondotik, aurtengoan Euskadiko txinga eramate txapelketa irabazi du

Xanta Souza Santos le-sakarrak. Irailaren 27an Barakaldoko Gurutzeta auzoan egindako saioan 48 plaza, hiru laurden eta 2,35 metro egin zituen 25 kiloko txingekin, erraz nagusituz (Plaza bakoitzak 28 metro ditu). Euskal Herriko marka berria ere hobetu du. Souzak berak zuen errekorra, 2012an

Elizondon egin zen Euskadiko txapelketan 47 plaza eta erdi pasatxo egin baitzituen.

Lesakarraren ondotik sailkatu zen Garazi Arruti bizkaitarrak 23 plaza eskas egin zituen, Sandra Perez bizkaitarrak kasik 19 plaza eta Karmele Gisasola bizkaitarra 14 plazatan gelditu zen. 2011n eta



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Xanta Souzak Barakaldon lortu du marka berria.

2012an ere Euskadiko txapelketa irabazia zen Xanta, baina iaz bigarren izan zen. Nafarroako txapelketa, berriz, azken lau urtetan irabazi du, 2011, 2012, 2013 eta 2014an.

Gizonezkoen txapelketan, 50 kiloko txin-

gekin, Arabako Kerman Perez de Heredia izan zen txapeldun, 28 plazarekin. Oscar Perez bizkaitarrak 25 plaza egin zituen, Ousmane Drame bizkaitarrak 22 plaza eta Eloy Salterrain bizkaitarrak 9 plaza eta erdi.

urriak 16 - 30

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Dokumentalak	Feriak	Ospakizunak
 ARANTZA 2014.10.31 'Arrakala' dokumentala ikusgai Kultur Egunen barne Topatu gazte proiektu komunitatiboak eta Bilgune Feministak elkarlanean, heteroarauei buruz egin duten dokumentala ikusgai izanen da Baskulan, 19:30ean.	 ELIZONDO 2014.10.24-25 Aziendak eta bertze hainbat aukera Udazkeneko Ferietan Azienda ederrak eta bertzelako produktuak ikusi eta erosteko aukera izanen da Elizondoko Ferietan. Bertsolariak eta pilota partidak ere izanen dira.	 LEITZA 2014.10.20-26 Mikologialdia antolatu dute zazpigarren aldiz Onddo eta zizekin lotuta, hainbat ekitaldi egingen dituzte aurtenera Leitzan: tailerrak, jolasak, mendi ateraldia, erakusketa mikologikoa, pintxo dastaketa...

gazkiak, Elkartearen egoitzara bidalita.

ORONÓZ
Argazki rally-a
Urriaren 19an.

BERA
Barazki-opil lehiaketa
Urriaren 25ean.

Ospakizunak
BAZTAN
Larrazken kulturala Jo ala jo Kultur Taldeak 15 urte bete dituela eta
Urriaren 18an Iruritako jauregiarten Ttun Ttun Eguna II.

Urriaren 23an Elizondoko Aise elkartean sagardo dastaketa eta ikastaroa.
Urriaren 30ean Arizkongo Gamioxarrean sagar dastaketa eta ikastaroa.
Azaroaren 1ean Arizkongo Gamioxarreko Dolaretxean, XV. Kirikoketa Besta.

LESAKA
Jubilatuena besta
Urriaren 24an.

ETXALAR
Usategietako igandea
Urriaren 19an.

SARA
Usoaren Astea
Urriaren 19tik 29ra.

DONEZTEBE
Arkupeak Elkarteko Bazkideen Eguna
Urriaren 16an.

LEITZA
VII. Mikologialdia
Urriaren 20tik 26ra.

Ikuskizunak
URROZ
Kiki, Koko eta Moko Malerrekako Kultur Ibilbidearen barne
Urriaren 25ean paila-

Erakusketak**LEITZA****'Diruaren sexu ezkutua'**

Azaroaren 4ra arte udaletxeko lehenengo solairuan, euskal emakumeen ekonomiaren inguruan.

BERA**'Bera eta Don Julio'**

Urriaren 25 eta 26an Rosa Mari Errandonearen erakusketa Labiaga ikastolan.

Margolari beratarrak

Urriaren 26ra arte Berako dendetako erakusleihoetan.

'Don Julioren arrastoa'

Urriaren 24tik azaroaren 23ra Kultur Etxean.

SARA**'Usoak Sarea'**

Urriaren 20tik 24ra Turismo Bulegoan.

Hitzaldiak**BERA****Julio Caro Baroja gogoan**

Urriaren 17an Bizipenak, Julio Caro Barojaz solasean. Herritarren testigantzak. Beralandetan 19:30ean.

IRURITA**Liburuen aurkezpen gurutzatua**

Urriaren 18an Jauregi-arte tabernan (19:30). Pello Salaburuk Hasier Larretxearen *Larremotzetik* liburuaren aurkeztuko du, eta Hasierrek Pelloren *Errateko nituenak*. *Cuzcoko kronika*.

LEITZA**Etxeko zaintzaileentzat**

Urriaren 20an, Manejo de Alteraciones de conductas, 15:30ean udaletxean.

LESAKA**Julio Sotorekin**

Urriaren 17an, 17:30ean Harriondoan.

DONEZTEBE**'Emakumea eta kirola'**

Urriaren 31n, Malerrekako Mankomunitatean, 11:30ean.

Ipuin-kontalariak**ARANTZA****Kultur Egunen barne**

Urriaren 31n 3-11 urteko haurrentzako, 17:00etan Baskulan.

Tailerrak**BERA****Serigrafia tailerra**

Urriaren 30ean Gaztetxean, 17:30ean.

Baratze Biodinamikoaren topaketa

Urriaren 31tik azaroaren 2ra Gaztetxean.

Lehiaketak**LESAKA****Beti Gazte Elkartearen argazki lehiaketa**

Urriaren 31ra arte aurkez daitezke ar-

PROPOSAMENA**BERA****28. Lurraren Eguna urriaren 26an**

Hitzorduari hutsik egin gabe, aurtan 28. aldiz Lurraren Eguna antolatu dute Beran. Urriaren 26an izanen da egun haundia, orduan izanen baitira eskulangileen azoka, barazki erakusketa, gasna eta sagardo lehiaketak, herri kirolak, dantzariak, bertsolariak, musika... Bezperan ere ekitaldi gehiago izanen dira: Lizuniagako Igoera, argazki erakusketa, barazki opil lehiaketa...



zoak frontoian (17:00).

ETXALAR

'Karakola eta barea' antzerkia

Urriaren 18an Kultur Etxean 18:30ean.

IRURITA

Haurrendako antzerkia

Urriaren 26an Zirika Zirkus taldearen *Konpost Eroak* Gizarte Bilgunean, 18:00etan.

Bertsoak

LESAKA

Bertso musikatuak

Urriaren 25ean 20:00etan Harriondoan.

Zahar Etxean saioa

Azaroaren 1ean Andra Mari egoitzan saioa, 17:00etan.

Bertso desafioa

Azaroaren 1ean lurretan eta Lesakaren artean Haizegua ostatuan, 23:00etan.

Gaztain jatea bertsolariekin

Azaroaren 8an Sustrai Colina eta Jon Maia, Josu Goikoetxearen gidaritzapean, 20:00etan Basurden.

IPAR EUSKAL HERRIA

Xilaba Bertsulari Xapelketa

Urriaren 18an Aiherrako Denen Etxea gelan kanporaketa (17:00).

Urriaren 26an Larresoroko herriko gelan, finalaurrekoa (17:00).

Azaroaren 2an Aiziritzeko herriko gelan, finalaurrekoa (17:00).

Azaroaren 15ean Baionako Lauga gelan finala (17:00).

Kontzertuak

BEINTZA-LABAIEN

Mikel Markez eta Erramun Martikorena *Malerrekako Kultur Ibilbidearen* barne

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Orpoz orpo

ERNESTO PRAT URZAINKI

Txalaparta, 2014

Sasian zegoela ekin zion sortzez Berriozarkoa baina Elizondon bizi den Ernesto Prat Urzainki idazleak klandestinitatea, sexua eta umorea nahasten dituen kontakizun hau idazteari. Liburu honetako protagonistak, Karlosek, ihesari ekin behar dio Guardia Zibilak herrian egindako atxiloketa batzuk medio. Nafarroan hasi eta Euskal Herriko arras urrutituko den alde-egite eroan, aberriaren edo sozialismoaren militante baino sexuaren militante den Karlosek inguruan dauzkan guztiak dantzan jarriko ditu: laguntza emanen dioten kideak, poliziak, Erkunde... Hala, bada, estutzen doan bidean, iheslariak orpoz orpo izanen ditu txakurrak, atxiloketa, espetxea, heriotza eta erlojua. *Orpoz orpo* Ernesto Pratzen bigarren nobela da eta oraingoan Txalapartarekin argitaratu du Literaturara bilduman, kontakizun erotikoen sailean. Aitzinekoa, *Hiru ilargi laurden* Baztango Metaziri aldizkari-kolektiboak argitaratu zuen.

Musika



Euskaraz bizi eta ikasi

EUSKARAZ BIZI ETA IKASI

2014

Nafarroan, Euskararen Legearen ondorioz, eremu ez euskaldunetan bizi diren guraso batzuk orain dela urte bat sortu zuten Euskaraz Bizi eta Ikasi herri ekimena. Euskaraz bizi eta ikasteko eskubidea aldarikatzen dute. Bada talde horrek, Garesko Tortotxiki Fundazioaren laguntzarekin, hoguei abestiko CDa argitaratu du, auzolanean. Nafarroa osoko hainbat taldek parte hartu dute diskoan: Leihotikan, Kaniño, Non Nahi, Timbakada, Ezen Balea, Jaleo, Jonny Walltrash, Sagundiles, Zaunk, Berrotza Araneko Abesbatza, Xoriñoak Kaloian, Agresion Permanente, Los Goma, Hipotekaos, Shoot&Erre, Leonor Maritxalar, Marianitoz Blai, Bolbora, Trikidantz eta Maria Morentin. CDan Euskararen Legeak Nafarroako erdialdean eta hegoaldean eragindako ondorioak jasaten dituzten familien bizipenak ere bildu dituzte: Berrueza, Tuteran eta Larragako hiru familiren esperientzia, orain dela 15 urte Oteizatik Lizarrako eskolara joateko bidean semea galdu zuen familiarena...

Internet



Etorkizunari begirako hedabide digitala

ETZI.PM

Etorkizunak eraikitze bidean nabigatzeko tresna berria da *etzi.pm* webgunea. Talaio kooperatibaren proiektu bat da. Bultzatzaileek etorkizuneko estrategiak hainbat gaietan planteatzerakoan, Euskal Herrian etorkizun posible horien inguruko eztabaida eta hausnarketa falta zela ikusi zuten, eta hori izan zen egitasmoaren abiapuntua. Hedabide digital bat da; etorkizunari begirakoa. Hainbat atal ditu, eta edukiak gai ezberdinetan adituak diren artikulugileek lantzen dituzte. Atal horiek Denbora eta Espazioaren arabera banatuak daude. Denborarekin loturik *Iparorratza* eta *Astrolabioan* gaurtik etorkizunera garrantzitsuak izanen diren gaiak identifikatu eta aztertzen dituzte. Espazioarekin lotuta, berriz, *Uharte* eta *Itsasoa* ataletan, hurbileko eta urrutiko eremuetan etorkizuna baldintzatuko duten gaiekin aritzen dira. Kanpoko eduki aukeratzatuko duten espazioa *Faroa* atala da.

Urriaren 18an elizan, 19:00etan.

ETXALAR

Beira taldea

Urriaren 18an plazan arratsalde-ilunabarrean.

ELIZONDO

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa eta Elizondoko Abesbatza

Urriaren 18an elizan, 20:15ean.

BERA

Bera kantari

Urriaren 25ean Illekuetatik abiatuta, 19:00etan.

SARA

III. Uso Pop jaialdia

Urriaren 19an Santa Katarina kaperan, 17:00etatik aitzinera.

SENPERE

Oskorri taldea Zaldubi ikastolaren alde

Urriaren 26an Larreko Kulturunean (16:00).

Filmak

DONEZTEBE

Zinema

Urriaren 26an *Perez ametsetako sagutxo* 16:30ean eta *Malefica* 18:30ean.

ARANTZA

'Arrakala' dokumentala

Urriaren 31n 19:30ean Baskulan.

Azokak

ELIZONDO

Azienda feria

Urriaren 24an.

BERA

Lurraren Eguna

Urriaren 26an.

ARANTZA

Baseritarren Eguna

Azaroaren 1ean.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONOS-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Bero-gailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. 948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

BERA. Etxebizitza atxikia salgai. 200m². 3 solairu, kalitateko materialak, 4 logela, 2 bainugela, garajea (27 m²) eta lorategia (75m²). 3 auto-rentzako aparkalekua. 350.000€ (prezio negoziagarria). Deitu 19:00-etatik aurrera. 636 880115.

ELIZONDO. Santiago karrikan pisua salgai, trastelekua, garajea eta igogailuarekin. Oso argitsua. Balkoi haundiak. 2007koa, estreinatu gabea. 71,78m²koa, 2 logela, sukalde-jangelazabala eta bainugela bat. Material onekin egina. Prezio merketua: 121.000 euro. 665 706228 / 943 618933.

LEITZA. Pisuasalgai, bagera eta igogailuarekin.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

90.000 euro. 660 856246 / 634 406302.

LESAKA. 98 m²ko pisua salgai. 3 logela, bainugela 1, egongela subajurekin, sukaldea despentsarekin eta mobleztatua. Igogailua eta buelta osoan balkoi ederrarekin. Bizitzera sartzeko prest. 609 445769.

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio ekonomikoa. 646 774177.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

ELIZONDO. Giltxaurdi karrikan pisu berria errentan emateko. Garajea eta trastelekua. 3 logela, 2 bainugela eta egongela. 450 euro. 600 418207 (Mertxe).

IRURITA. Etxea errentan emateko. 3 logela eta garajearekin. 659 764375.

DONEZTEBE. Duplexa errentan emateko. Sukaldea, egongela, komuna eta 2 logela. 350 euro. Pisua estrenatzeko dago. 674 847735.



BERA. Pisua errentan emateko, 65 m², trastelekua eta garajea marrrarekin. Pisua mobleztatua dago, komun bat, 2 logela, sukaldea, terraza eta jangela. Ondo komunikatua eta bista onekin. 687 926414.

BERA. Agerra auzoan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela eta egongela. Igogailua. Mobleztatu gabe. 615 707323.

NARBARTE. Hiru logelako etxe berritua erren-

tan emateko. Argitsua eta lasaia. Wifi. Prezioa: 300 euro. 677 765753 / domekenea1@gmail.com.

**ETXEBIZITZAK**
errentan hartu

BAZTAN ALDEA. Baserri bat errentan hartuko nuke. Baratzeta edo lur eremu ttiki batekin. 626 263011.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESAKA. Eltzetako plaza lur azpiko garajea salgai. 646 774117.

LESAKA. 93 m²ko bagera salgai, Koskontako Bidea 11n. Etxebizitza

egiteko aukerarekin. Gasa, ura eta argindarra sartuak ditu. 609 445769.

LESAKA. Eltzetako plaza lur azpiko garajea salgai. 8.100 euro. 948 630474.

LANA

eskaintzak

ZUGARRAMURDI. Al-tzatenea jatetxean sukalderako laguntzailea behar da. Urte osorako lana. Esperientzia pixka bat duena. 948 599187.

BERA. Ostatu batean egun erdi lan egiteko zerbitzaria behar da. 948 631271.

IBARDIN. Beola Bentan egunero denda lan egiteko jendea behar dugu. Frantsesa jakitea nahitaezkoa da. 948 630709.

ZUGARRAMURDI. Jatetxe batean zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. Frantsesez pixka bat jakin behar du. 948 599082 (Goizean edo 17:00-etatik aitzinera deitu, eguerdietan ez).

SARA. Urtxola jatetxean zerbitzaria behar du asteburuetan lan egiteko, jatetxean eta ostatuan. Esperientziarekin. 0033 559 542131 / 686 561525.

LANA

eskariak

Haur Hezkuntzako ikasketak dituen **emakume euskaldunak** arratsal-

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(irailaren 26tik urriaren 3ra bitarteko prezioak)



Zerrikumea
(19 kilo): 35 € (-6,00)

Zerri gizena
1,212 € kilo. (-0,055)

Zerramak:
0,590 € Kg/bizirik. (-0,040)



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,22
1.koa 4,02
2.koa 3,84

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,32
1.koa 4,06
2.koa 3,89

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00
idixkoak 160,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,10/7,70
8-10 kilokoak: 6,30/6,60

dez lan eginen luke, haurrak zaintzen edo edozein lanetan. ☎663 695410.

Emakume euskaldun batek etxeak garbitzen edo helduak zaintzen lan eginen luke, Beran edo inguruan. ☎666 641166.

Haur Hezkuntzako titulua eta esperientzia duen **neska batek** haurrak zaintzen lan eginen luke Bera edo inguruan. ☎627 609332.

Mutil euskalduna edozein lanetan ariko litzaiteke. Sukaldaria, harkina eta abeltzaina izandakoa. ☎618 095008.

Emakume euskalduna asteburuetan lan egiteko prest. Doneztebe edo Elizondo inguruan badahobe. Edozein lan dela ere, deitu eta hitz egingo dugu. ☎636 751487.

ELIZONDO. Emakumea orduka garbiketa lanetan ariko litzaiteke. ☎626 507436.

Doneztebeko **emakume** batek etxeak garbitzen, haur edo adinduek zaintzen lan eginen luke. ☎673 372938.

ZERBITZUAK zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia

- Klase guztietako zurgin lanak
- Eskatu sarrak kontuak konpromisoak gabe

Jane Miquel Zurgindaria
Tel: 948 434 048 - 447 310 144
Gertaketa - ARANTZA

ZERBITZUAK denetarik

ROSA BELSUME
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu orduak

☎ 948 272011 (RUAA)
☎ 948 580975
Jarmen Urutia 42-20 - ELIZONDO

ZERBITZUAK klase partikularrak

Euskal Filologian lizenziatua **Euskarako klaseak** emateko prest,

SANTESTEBAN TAILERRAK

2011 urtekoa - 64.000 km NABIGAZIOAL, 8 TROFEO, ABS, ESP, etc.	2011 urtekoa - 71.000 km	2011 urtekoa - 23.000 km

ETA GAINERA:

- KANGOO II 5 PLAZAKOA, 2011 urtekoa - 37.000 km
- KANGOO FURDÓN 1.5 DCI 70 CV, 2010 urtekoa - 56.000 km

KILOMETRO Osoan prezio ezin hobekak!!!

idatzia nahiz ahozkoa, maila guztietan. Deitu konpromisorik gabe. ☎661 772065.

Lehen Hezkuntzako titulua duen **mutil bat**, DBH eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emateko prest dago, ingelesa barne. Doneztebe eta zonaldea. ☎677 193134.

ZERBITZUAK eskariak

MALERREKA edo **BAZTAN** INGURUAN zeharkako txirula ikasteko klase partikularrak hartuko nituzke. ☎948 920020.

LEITZA eta **INGURUAN** josten ikasi nahi dut. ☎695 716894.

MOTORRAK tailerrak

GANIX
Tallera

☎ 948 63 06 69
Bordabenta, 6 - 48940 (AA)

MOTORRAK salgai

Suzuki Bandit 600 N salgai. 2001.ekoa. Oso egoera onean, 1.900 euro. ☎626 684311.




Pascuali traktorea salgai. 18 zaldikoa. Direzio eta freno mekanikoak ditu. Egoera onean. 2.500 euro negoziagarriak. ☎665 731414.



ANIMALIAK salgai

Oilagor ehiztari onen **sester zakurkumeak** salgai. ☎618 962653.




Border Collie arrazako zakurkumeak salgai. ☎661 767027.

Asto bat eta urte beteko bere **astokume** emeak salgai. Oso etxe-koak. ☎948 451787.

DENETARIK salerosketak

Zero Sette markako **trikitixa** salgai, 3 ahotsekoa. ☎619 845859.



URROZ

Herriko Ostatuaren alokairua

Udalak, erabaki du lehiaketa publikoaren bidez **Urrozko Herriko Ostatua** errentan ematea. Lehiaketa, bertzeak bertze, baldintza hauek arautuko du:

- Alokairuaren iraupena: 2 urte, luzatzeko aukerarekin.
- Hilabeteko errenta: 200 euro/hilabetea gehi BEZa.
- Lehiaketan, bideragarritasun plana, eskarmentua, hobekuntzak eta diru eskaintza baloratuko dira.
- Behin-behineko fidantza: 300,00 euro.
- Eskaintzak aurkezteko epea: **2014ko azaroaren 13ko, eguerdiko 11,00ak arte**. Eskaintzak, Urrozko Udaleko Idazkaritzan aurkeztuko dira, horretarako onetsitako administrazio baldintzen agirian adierazten den gisara.

Administrazio baldintza partikularren agiria interesdunen eskuara dago Udal Idazkaritzan. Informazio gehiago, korreo bat bidaliz helbide honetara udala@urroz.es eta 948-450013 telefonora deituz (asteartea eta ortzeguna 08:00etatik -11:00etara)

Urroz, 2014eko urriaren 8an
Alkatea, Inaxio Urroz Grajirena



DONAMARIAKO UDALA

Gazteluko Ostatuaren alokairua

Udalak, erabaki du lehiaketa publikoaren bidez **GAZTELUKO Herriko Ostatua** errentan ematea. Lehiaketa, bertzeak bertze, baldintza hauek arautuko du:

- Alokairuaren iraupena: 2 urte, luzatzeko aukerarekin.
- Hilabeteko errenta: 150 euro/hilabetea gehi BEZa.
- Lehiaketan, bideragarritasun plana, eskarmentua, hobekuntzak eta diru eskaintza baloratuko dira.
- Behin-behineko fidantza: 300,00 euro.
- Eskaintzak aurkezteko epea: **2014ko azaroaren 19ko, eguerdiko 14,00ak arte**. Eskaintzak, Donamariako Udaleko Idazkaritzan aurkeztuko dira, horretarako onetsitako administrazio baldintzen agirian adierazten den gisara.

Administrazio baldintza partikularren agiria interesdunen eskuara dago Udal Idazkaritzan. Informazio gehiago, korreo bat bidaliz helbide honetara udala@donamaria.es eta 948-450046 telefonora deituz (astelehena eta ortzirala 12-15etara, eta asteazketan 8-15etara).

Donamarian, 2014eko urriaren 8an
Alkatea, Mikel Arregi Mindegia

ORONÓZ. Egurra xe-



hetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramane da. ☎676 242520.

LESAKA. Hustutako baserri baten biga zaharrak salgai. ☎948 630474.



urtebetetzeak

Argazki soilak: 4€; bikoitzak: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



ANARTZ SANCHEZ
APEZETXEAK 8 urte egin ditu urriaren 10ean. Gizon txiki bat! Zorionak eta muxu asko aitaxo, amaxo, Ania eta Goizuetako fami-



Aunitz urtez **AMAIA!** Urriko gure bertze neskatxari bertze muxu haundi bat lan-kideen partetik. Ongi pasa zure eguna!



Sunbillako **XUBAN JAUREGI**
GARTXITORENAK 4 urte beteko ditu urriaren 28an. Ongi pasa eguna eta prestatu txokolate goxo-goxoa. Urte askoz Doneztebeko familiaren partetik eta bereziki osaba Koldoren partetik.



MAIALEN ALMANDOZ
ANSALAS zugarramurdiarrak 2 urte beteko ditu urriaren 19an. Aunitz urtez Lesaka eta Zugarramurdiako familiaren partetik.



Aunitz urtez **IORITZ!** Arantzako gure gizon txikiak 2 urte beteko ditu urriaren 27an. Bi muxu potolo Oier, Enea, Ainere, Alaitz, Ane, Intza, Aroa, Beñat, Udane eta Elaiaren partetik.



Urdazubiko **JULEN** eta **IBAI AGESTA**
MIHURAK 2 eta 4 urte bete dituzte uztailearen 27an eta urriaren 15ean, eta **PABLO IRAZOKI OLAIZOLAK** 10 urte eta **ZUHAITZ BAZTERRIKA**
MASKOTENAK 12 urte bete dituzte urriaren 10ean eta 7an. Zorionak aunitz lau bururiei!



Sunbillako **PABLO IRAZOKI**
OLAIZOLARI aunitz urtez urriaren 10eko partez! Ia 10 urte, muxu pila amatxi Beatriz eta Xoleren partetik.



IORITZ IGUZKIAGURRE
IRIGOIENAK 2 urte beteko ditu urriaren 27an. Zorionak eta muxu bat familia guztiaren eta batez ere Ainereen partetik.



Arantzako **ASIER MUTUBERRIA**
PAGOLAK urteak beteko ditu urriaren 20an. Zorionak 5. urtebetetzean. Muxu bat familiaren partetik. Ongi pasa zure eguna!



Eratsungo **IZARO ESKUDERO**
BERNALEK urtea bete du urriaren 5ean. Zorionak familia guztiaren partetik.



Etzalarko **ENERITZ ARANBURU**
GALARREGIK 5 urte beteko ditu urriaren 23an. Aunitz urtez atabxi, amatxi eta anaiaren partetik. Muxuak.



Zubietako **MAIALEN HUALDE GOÑI**
gure etxeko printzesak 2 urte bete ditu urriaren 11n. Zorionak Zubietako eta Zozaiako familiaren partetik. Muxu eta besarkada haundia, maitia.



Txio Txio Txorro Txio, **HELENE**, gure udazkeneko txorito honek, Arantzako 5 urte bete ditu urriaren 14an. Mila pila muxu potolo!



Sunbillako **AIMAR BERTIZ BABAZE**
gure etxeko gizon txikiak urtea beteko du urriaren 22an. Zorionak Sunbillako eta Urrozko familia guztiaren partetik, batez ere hainbertze maite duzun zure arreba Nahiaeren partetik. Muxu haundi bat potxolo!



Berako **ATAXI**
SEBASEK urteak beteko ditu urriaren 18an. Zorionak **ATAXI!**



Leitzako **ROSARIO MONACOK** 85 urte bete ditu urriaren 7an. Zorionak eta muxu haundi-haundi bat Aurtizko familiaren partetik eta bereziki Leiane bibilobaren partetik.



Igantziako **OLAIA HITA ARANGUREN**
2 urte beteko ditu urriaren 18an. Aunitz urtez etxeko pintxexa. Muxu aunitz atta eta amatxoren partetik.



Zorionak **OLAIA!** Prestatu tarta goxoa ataxi-amatxientzat, osaba-izeba, eta noski, Aneider, Julen, Unai, Naia, Oihane eta Larraitzentzat. Muxu aunitz mari sorgintxo!




Altzako **ITSASO LIZARRAGA**
CEREZOK 5 urte beteko ditu urriaren 20an. Zorionak eta muxu haundi bat Lesakako ataxi, amatxi eta osabaren partetik. Ez hartu inolrre konkon!



Berako **KAIET ERKIZIA**
ORDOKI eta **ATAXI** **JAVIERREK** urriaren 24an 4 eta 64 urte beteko dituzte. Zorionak eta bi muxu haundi familia guztiaren partetik.



Berako **LAURAK**
urriaren 16an urteak beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik.



Urriaren 11n Zubietako **MAIALEN HUALDE GOÑI** gure lehengusina txikiak 2 urte bete ditu. Zorionak Lorea, Enaitz, Amets, Goizane eta Oihanen partetik. Muxu eta besarkada haundia.



Urriaren 11n Zubietako **MAIALEN HUALDE GOÑI** gure lehengusina txikiak 2 urte bete ditu. Zorionak Lorea, Enaitz, Amets, Goizane eta Oihanen partetik. Muxu eta besarkada haundia.

Harpidetza baino merkeagoa da

TTIPI TXARTELA

40€

- Aldizkaria duon
- 44 dendetan deskontuak
- Hamaikakotako txaketa laguntza
- %25eko desgrabazioa errentaren alortopengatik

TTIPI-TTAPAren urteko kutsak 34 euro baino gutxiago. TTIPI TXARTELA dutenek 30 euro pagatu behar dute, urtearen azkenean, Errentaren Aitorpenarekin 10 euro itzuliko baitzaie.

ttipi-ttapa 948 635 458

%10
%8
%5

OPARIAK
ALDIZKARIA
BAZTAN
MALERREKA
BORTZIRIAK
LEITZA

Urriko zk. saritua 4.319

Bi lagunendako bazkaria

Saritua bilaren 31 baino lehen deitu behar da Bortziritako Hiri Hondakinen Mankomunitatera

948 63 52 54

MERKATU TTIKIA

Bizikleta salgai, berri-berria. Konpromisorik gabe ikusten ahal da. 150 euro. ☎630 180805.



SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/699 461394.

DENETARIK oparitzeko

Larungo harria opari emateko, pareta zahar batean dagoena. Garroria norberaren esku. ☎626 774582.



ttipi txartelarekin beti irabazten da !

DESKONTUAK ZOKKETAK
TTIPi-TTAPi ALDIZKARIA MUSUTRIK
%25eko DESKONTUAK
ERRENTA AUTOPENZAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPi-TTAPi

Koordinatzailea: LESAKA

T: 948 635 458 - F: 948 635 457

info@ttipi.net

www.ttipi.net

ZOKKETAK

623 ALEKO IRABAZLEAK

KAMISETA BAT | Onddo ta Punte

Maritxu Petrirena | ELGORRIAGA

2 SARRERA | GARAÍ NURIA

Txaro Zubietza | BERA

Marian Irazoki | BERA

2 LIBURU | Eran

"Mikeli Marrau" | Joseko Susperregi | LESAKA

"Hautsi da kalea" | Begoña Arizmendi | ELIZONDO

DVDa TXANTXARRAK | URTXINTXA

Pedro Luis Lekuona | LESAKA

2 SARRERA | Insausti

Gotzone Ariztegi | AURTITZ

2 SARRERA | Aquarium

Rafaela Zamorano | IGANTZI

1

HIRU LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com



2

2 LAGUNENTZAKO AFARIA
OITZKO OSTATUA
www.poradacoit.com



3

HARPIDETZA HILABETE 1
Berria egunkaria
www.berria.info



4

TXITIL DVD
Tukolo, Pimta eta Pomata
www.3-60g-berria.com



5

2 SARRERA
Sorginen lezeak
www.buruzugarramurdi.com

SORGINEN LEZEA



6

2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumms.com

AQUARIUM



DESKONTUAK

FOTO-EROSKIZIAK

GOIKO

BERA | %10 kopia digitaletan

kukuka

DONETZETIE

%10 pizarra eta barruko arropetan

MASTER

ALTZURI

LESACA | %5 etxetresnetan



KIROLIAK ZELA

BERA | %5eko deskontua

elika

BERA | %5 kontsultan

txinelka

ZAPATADENDA

LESACA | %10eko deskontua



Lurriaren Eguna

2014

urriak 26 Beran